

KOLDO MITXELENAREN
EKARPENA
SOZIOLINGUISTAREN
ARLOAN - (II)

José Manuel Odriozola

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.
Año 41. Tomo XXXVIII. N.º 1 (1993), p. 73-106
ISSN
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Jakintza eta euskaltzaletasuna inork gutxi bezala uztartu zituen Koldo Mitxelena. Gure “lokarri zaharra”ren osagaririk nagusiztat zeukan euskara. Ez du, hala ere, hizkuntz determinismoan sinetsiko, harako Sapir-Whorf-en hipotesiaren harian. Baina euskal literaturarik ezin izango da egin, euskararik gabe.

Diglosia egonkorren aldeko genuen Mitxelena euskararen etorkizunari dagokionez. Ez zuen alegia lehiakide ikusten euskara auzo-erdarekin; funtzio-esparruen nolabaiteko banaketan zekusan euskararen etorkizuna.

Mitxelena, beste asko bezala, euskararen iraupen luze-harrigarriak liluratsen zuen, eta ez zuen aurkitu iraupen horrentzat “esplikazio oso-beterik”. Dena dela, berak ireki dizkigu esplikazio hori aurkitzeko bide ezinhobeak.

Koldo Mitxelena supo unir ciencia y vascofilia como nadie. Para él el euskara era el componente principal de nuestro “antiguo vínculo”. Con todo, no llegó a creer en el determinismo lingüístico, según la hipótesis Sapir-Whorf. La literatura vaca, sin embargo, no será posible sin el euskara.

En cuanto al futuro del euskara Mitxelena era partidario de la diglosia estable; el futuro del euskara residiría en un reparto de campos y funciones.

Mitxelena, al igual que tantos otros, se encontraba fascinado por la larga y asombrosa pervivencia del euskara y no encontraba una explicación enteramente satisfactoria para este hecho. De todos modos, él fue quien abrió caminos para encontrar esa explicación.

Koldo Mitxelena was capable of uniting science and Basquology more than anybody else. For him, the Basque language was the main component of our “ancient bond”. In spite of everything, he never came to believe in linguistic determinism according to the Sapir-Whorf hypothesis. Nevertheless, Basque literature would no be possible without the Basque language.

With respect to the future of the Basque language, Mitxelena was in favour of stable diglosy; the future of the Basque language would reside in a sharing out of fields and functions.

Like so many others, Mitxelena was fascinated by the long and astonishing survival of the Basque language and couldn't find an entirely satisfactory explication for this fact. In any case, it was hin who opened the ways to finding this explanation.

EUSKARA: EUSKALDUNTASUNAREN HABE ETA ZIMENTARRI

“Lokarri zaharra” eten ez dedin euskarak iraun behar du euskal gizartearen joan-etorri historikoan. Mitxelenarentzat “lokarri zaharra” taxutzen dutenen artean, euskara gailen ageri da bere gogoeta luzeetan barrena.

“Eta gainerakoen gain, gorago eta barrenago, gure izaera osoa biltzen eta barrantzen duen hizkuntza, barrenago mintzabeharrari hitz-iturri luzea ematen diona. Hizkuntzaren guretzako balioa, berriz, zein gurea, zein ezin-utzizkoa dugun ezin jakin, gure artean bezala hildako ala bizitako ote dugun zalantzan gaudenean baizik”. (1951a, 22. orr.).

Are urrunagoa doa, beraz, hizkuntzarekiko pentsabidea eta kezka mintzaira hori desgertzeko zorian aurkitzen bada. Horrelako egoeratan bestetan ez bezala baloratzen da hizkuntzaren izaria, eta Mitxelenaren gogoeta jakingarriok ere agian ez genituen inoiz ezagutuko errenteriarra jaio zen herrialdean eta garaian jaio izan ez balitz. Hona alderdi makur guztien alderdi emankorra.

Euskal Herria, herri gisa, pentsa ezina da Mitxelenarentzat euskararik gabe. Hark honi zor dio bere euskal izatearen ezaugarri nagusia.

“Euskal herria deritzan zerbait baldin bada oraindik munduan, mendez mende gorde dugun hizkuntzari zor zaio. Ez da, esan beharrik ez, hizkuntza bakarrik izan; bai, ordea, beste arrazoi askoren azkeneko erro eta oinarri”. (1972b, 155. orr.).

Besterik ere bada noski gizartetasunaren zimentarrietan. Ezinbestez, jakina. Halarik ere, hizkuntzatasunak zimentarri horietan izan duen eta duen lekuaz maizenik iritzi arinak eta hutsalak entzuten dira. Baluke horrek, zalantzarik gabe, aztergaia den zer teoriko horren statusarekin zerikusirik franko. Baina goazen gure izaeraren iturburu hila.

“Hizkuntza izan da gure izaeraren habe eta sostengu nagusia”. (1981a, 119. orr.).

Euskaldunok dugun guretasun berezia hizkuntzari zor izana, beste gizarte-istantzien antzekotasunari kontrajartzen zaio. Hizkuntzaren bereizgarritasun gailena, guk uste, bestek ez duten nortasun-izaeraren aldemenen soilik nabari daiteke. Auzi honek badu noski zerikusirik delako tesi sonatu bezain funsgabe harekin: hizkuntza eta gainegituraren arteko korrespondentziak ari gara, alegia. Hizkuntzaren iraunkortasun bereizgarria inork ezin uka dezake, bere baitako aldakortasunaz gauzak batera garbi ez badaude ere.

“Gizarte bat besteetatik berezten duten ezaugarrien artean hizkuntza dugu, larriena ez bada, larrienetakoa. Norbera, hizkuntza bakarreko gizarte batean, ez da honetaz konturatzen, harik eta bizibeharrak beste gizarte batera erauz dezan arte.

Hizkuntza, barrenera begira batzaile baita, kanpora begira, aldiz, berezle. Mintzabide horretaz baliatzen diren pertsonak berorren jabetasunak eta erabiltzeak alkartuta sentitzen dira; era berean berorren jabe ez direnak bereziak eta baztertuak bezala aurkitzen". (197213, 18. orr.).

Humboldték aitortu ohi zuen haritik, hizkuntza loturagailutzat jo behar da hiztunen arteko sistemak taxutzen ideologi-eremuan. Elkartasuna, bestalde, ez dirudi afektu-mailara murrizten denik, hala-holako atxekimendu psikologikora mugatzen denik alegia. Sistema soziolinguistikoak, besteak beste, ondorio ideologikoak erakartzen ditu hiztunaren jokabidean eta beronen baitan ez da balio gutxien duena hizkuntzarekiko jarrera hartze nabarmena.

Nork bere berezko hizkuntzarekin etetea, izan ere, aski gatazkatsua izan ohi da. Aski eza-guna zaigu hizkuntza murriztuetakoa hiztun frankoren amaiera tragikoa; hauek baztertuak eta ezereztuak sentitu direlarik, beren hizkuntza zapalduari egotzi izan ohi diote beren galmendia- ren makurra, ondorioz harekiko gutsiespenezko gorroto-saminak biztu zaizkielarik beren hiz- kuntz jokabieetan barrena.

"Nork bere hizkuntza ukatzea da, gutxigorabehera nork bere izaerari uko egingo baldin balio bezelaxe". (1983b, 6. orr.).

Erdaraz ari delarik, koldoren uste eta asmoak beretsuak dira atal honetako auziari dago- kionez. Gure euskalduntasunaren izaria euskarari dario funts-funtsean.

"Hasta se podría sostener, sin pecar de paradoja, que los vascos, en cuanto grupo humano claramente diferenciado, sólo existen gracias a la existencia, tangible todavía, de la lengua. En otras palabras, el mantenimiento de la lengua en el núcleo menos aculturado del País ha obrado, por su sola presencia, como agente unificador en la conciencia de las gentes". (1986a, 233.orr.)

Gauzak horrela, euskara ez da izan soil-soilik euskaldungoaren barreneko lokarrien eus- karri. Euskal hiztunen gunea babestu eta taxutu alde batetik, eta geografiaz euskalduna izan den lurraldeetako jendearen euskal kontzientzia ere, neurri batean ala bestean, erne eta finka- tu du bestetik. Datu hau egiaztatzeko aski litzateke hauteskunderen bateko edo besteko bo- zen zer-nolakoa aztertzea, euskararekiko urruntasun/hurbiltasun faktorearen eragina nabaritzeko.

Eta egunen baten edo bestean euskara behin-betirako zenduko balitz zer litzateke gure herriaren geroa? Hizkuntz ordezkapenetan lehendik zegoena gero etorriak ordezkatzan due- nez, eta ordezkapen hori nola ez den izaten maila linguistiko hutsean hezurmamitzen den ger- takaria, izanak ez ezik izenak ere aldatuko ornen lirateke.

"No es un medio que pueda cambiarse por otro sin graves riesgos para la comunidad: se puede especular acerca de en qué se convertiría la nuestra si la sustitución llegara a consumarse, a medida, sobre todo, de que los recuerdos fueran haciéndose más lejanos y más borrosos. Euskadi podría acaso subsistir, pero sería una Euskadi que nada tendría ya de Euskal Herria". (1980a, 22. orr.).

Atal honekikoa egin aitzin, hizkuntzari buruz Koldok behiala agertu zuen iritzi jakingarri bat hona aldatu nahi genuke. Euskaldun egiten gaituena euskararen izakerari dagokio. Hobeki esan, bere aldakortasun edo aldagaiztasunari. Behiala, izan ere:

...mientras sectores vasquistas consideraban que la lengua representaba una esencia permanente, no mudable, esta valoración no era aceptada por otros; no se aceptaba porque se consideraba que desde una óptica historicista, digamos cla-

ramente marxista, lo primero no podía aceptarse... Lo que está claro para mí es que una lengua es un ente esencialmente variable. En contra de todos los estructuralismos que lo basan todo en la sincronía, creo que la lengua es esencialmente variable y, evidentemente, para un marxista también tiene que ser variable". (1981d, 35. orr.).

Irakaspen honen ondoretako bat, nahi izanez gero besterik ere erakar bait daiteke, zera da: euskalduntasuna bera ez dela gauza berbera historiaren gurpilean. Aldian aldiko eta lekuan lekuko baldintzapen sozialen arauera, euskalduntasun hori, bereizgarri berriz hornitua agertuko da zaharrekin etenez. Ezingo dugu, bada, "lokarri zaharra"ren irudia, mendez mendez esentziaz aldagaizta den zentzuan ulertu; zahar-berrituz eta itxuraldatuz etengabeko aldakortasunean barrena dabilen prozesu historikotzat hartzekoa dirudi, beraz, delako tasun horrek.

KULTURA ETA HIZKUNTZA

Kultura eta hizkuntza hertsiki loturik ikusi arren, hau ez da haren osagai huts Koldoren zat. Baina, ageriko gauza denez gero, kulturaren garapenak bortizki baldintzatzen du hizkuntzarena ere. Zorigaitztorako, euskal kultura, mendeko den kultura den neurrian, euskararen zoria kateaturik dakusa errenteriarak.

"Euskaldunok ez dugu, herri gaietan izan ezik, kultura berezirik: mendeko gara, kultura barruti horretan bizi gara. Ezin izan dezakegu, beraz, askatasunik hizkuntzaren aldetik: askatasun hori erdiets zitekeen VIIIgarren mendean, XIIIgarrenean eta XVIgarrenean ere bai oraindik; ez, ordea, oraingoan eta are gutxiago hurrengoan. Latinaren, eta erabat sortaldeko hizkuntzen, kutsua geure bekokian daramagu. Aitor dezagun, onar dezagun, eta goazen aurrera bide horretatik". (1968a, 115. orr.)

Badirudi, hitzok hartara garamatzate behinik behin, hizkuntzaren bilakabideak nolazpaiteko autonomia politikoa behar duela berarentzat, nolabaiteko askatasuna, alegia. Hori ezean, eta hori lortzeko izan ziren aukeren datak gogora erazten dizkigu, herri kulturaren adierazpide izatera makurtu behar izan du euskarak halaberrez. Argi dago, hortaz, hizkuntzaren nondik-norakoa determinatzen duten baldintzapenak ez direla kulturaren eremura murrizten.

Oraingoan zehazkiago mintzo zaigu Koldo kultura-hizkuntza bikoteaz beraiekikoa zertan den azalduz.

"Gehienetan hizkuntza kultura baten atal bezala hartu izan da, eta ene iritziz uste hau franko hedatua da. Zera, gizarteak beste ohiturez, ezkont legez, eta instituzioez gainera baduela kultur elementu bat beste horiek baino areagokoa, agian: hizkuntza. Neuk ez dut uste hau honela denik. Antal-ek dioenez hizkuntza ez da kultura baten zatia, kulturaren beraren bide, adierazpide eta tresna baizik.

(...) Antal-enari beste zertxobait gehituko nioke. Alegia, hizkuntza kultura bide osoa eta zatikakoa izan daitekeela". (197213, 128. orr.).

Alde batetik, kulturarekiko autonomia gordetzen du, nolazpaiteko autonomia bederen, eta bestetik ez da nahitaz delako kultura jakin baten adierazpide oso. Esaterako, euskara ez da Euskal Herriko kultura osoaren transmisibide osoa; esan bezala, orainsu arte behintzat, herri-kulturaren mirabe izan da gure hizkuntza. Gaztelaniari bagagozkio, ez litzateke euskal kulturaren lanabes eta euskarri izango, baina Hego Euskal Herriko kultura nagusiaren ardatza bera izango litzateke, nagusitasun hori indar-erlazioen egituraren erabakitzen delarik alde batera edo bestera.

Hizkuntz autonomia aipatu berri dugu, eta hitzak hizpidea dakarrarenez, sakon dezagun Mitxelenarekin autonomia hori zertan den kulturarekiko.

“Kultura molde batek bere aztarna uzten du hizkuntzan, eta honetan ere bat nator Antal-ekin (diodan bidenabar marxista dela), halarik ere ezin makur dezake honen egitura. Gauza bera bestela esan: hizkuntzaren muinari gagozkiola kultura berezkuntza axialari batipat datzeko. Eta autore marxista bat aipatu dugunez gero gogora dezagun Don José-k, ez Ortega y Gasset-ek, besteak baizik, behiala esan zuena: funtsez, orain Errusian egiten den hizkuntza Puxkinena berbera dela, hots, ez duela urriko iraultzak irauli. Beraz, gauza ageria da hau bezalako axola handiko gertakariak, orobat Frantziako Erreboluzioak, bere zantzua uzten dutela hizkuntzan, baina hau azalean gertatzen dela eta hiztegian batez ere”. (1972b, 128. orr.).

Iraultza sozialen ondorioz hizkuntzen errai eta egituretan gertatzen denaz, itxura guztien arabera, gutxi dakigu oraino, ezer ez esatearren. Pentsatzekoa da, gainera, hori ez dela hala-beharrez horrela suertatu; iraultza horien ondotik ezarri izan diren “hizkuntza nazionalak”, ezarri izan dituzten arrazoi berberetatik, amankumuneko itxurapean azaldu izan dituzte haiek eta ez, jakina, interesik gabe. Oragingoz konforma gaitezen Brunot-i buruz egiten den aipamena-rekin, hark ere, nonbait, ez zituen iraultza frantsesaren efektu linguistiko guztiak bereganatu ondoko aipuari bagagozkio behintzat.

“‘El francés durante la Revolución’ sería fundamentalmente ‘el mismo’ que el de ‘antes’ o el de ‘después’ : ‘el nuestro’. La *Histoire de la Langue Française*, de Brunot, la única hasta ahora que presenta un estudio de conjunto de las novedades revolucionarias en materia de francés, es incapaz de concebir racionalmente la separación entre el ‘francés clásico-postclásico’ y el ‘francés moderno-contemporáneo’”²⁷.

Baina, beldur naiz, ez ote naizen gehiegi urrundu gure atal honi darion izenburutik. Kulturaz ari ginen eta on da ideiarí legozkiokeen beste zenbait alderdí ere ukitzea, ahortutzat jo baino lehen. Alegia, Mitxelenari zer adierazten dio, azken batean, kultur izariak, bere luze-labur guztian.

“Yo veo las culturas en una relación de conjunto más amplio a conjunto más reducido: desde el punto de vista cultural, uno, además de ser vasco, por ejemplo, es muchas otras cosas. En el límite, allí donde el concepto de cultura como conjunto de diferencias se anula a sí mismo, uno es finalmente hombre, es decir, ser cultura en general”. (1971a, 146. orr.)

Maiz aipatzen da ekonomi arloko nazioartekotzea, edo lan sozialaren zatiketa internazionala; kultura eremuarekiko ere beste horrenbeste gertatzen dela aitortu beharko. Nazioarteko sarea, inoiz historían ez bezala, kapitalismoarekin sendotu eta harilkatu da; Estatu-kulturak ere jadanik bakartasun guztizkorik ez dutenez, are guttiagoren jabe izango dira Estaturik gabeko herriak. Kulturak bere erpinak ditu mundu zabalean, eta haiekiko harremanik gabeko herri-kulturak iraungipenera garamatza. Azken honek behar ditu, gainera, tarteko katemaiak, euskaldun izan ahal izateko, beste zerbait ere izan behar baita aldi berean. Eta kultur aniztasunari ez dio beldurrik Mitxelenak, irentsiak eta irenstzailerik ez baldin badago tartean.

“La participación en dos culturas, siempre que una no sea obstáculo para el desarrollo de la otra, es factor enriquecedor para quienes están abocados a ella. Es también favorable el aumento de las facilidades de intercambio, cuando una de las lenguas esté más difundida que la otra”. (1984a, 652. orr.).

ZER DIRA EUSKAL LITERATURA ETA EUSKAL IDAZLEA?

“Sí, porque lo que yo no creo demasiado es que un individuo piense de distinta manera por el hecho de hablar otra lengua”. (1974b, 106. orr.).

Mitxelenaren ustea, beste iritzi baten kontra, zera izan da: euskaraz hitzegiteak ez diola halakoari euskaldun pentsamendu jakinik zertzen. Kulturaren munduan zekusan pentsakeraren, honelakoaren edo bestelakoaren, moldapen-iturria. Hizkuntzak, barneko egiturari, kidekotzat zeuzkan eta horren frogapen iturritzat itzulpena erabili ohi zuen: horrenbestean, mintzaira berezi batek nekez taxu lezake halako pentsakera berezi bat.

Haatik, euskal literaturaren definizioa eman beharrez aurkitu zenean, ez zuen horrelakorik hautematen euskararik gabe.

“Kontreptu hau gehiago mugatu beharko badugu ere, bada zerbait alde aurretik aski garbi agertzen dena, niri behintzat argi iruditzen zaidana. Euskal literatura ezin izan daiteke euskaldunek euskaldunentzat egin dutena besterik. Hots, deus ilunik gelditu baldin bada hor, “literatura” gelditu da ilun, ez “euskal” aurrizkia.

Esanaren arabera, euskaldun zahar nahiz berriek idatzitako zernahi, literaturaren barrunbean sartzen baldin bada”. (1981b, 259. orr.).

Oker ez bagaude, “literatura vasca” delakoa ez litzateke Mitxelenarentzat euskal literatura izango; adjetiboa aldatu gabe bederen, “euskérica” edo horrelakoren bat erantsi gabe. Halaz guztiz, herri ttipi bati bere hizkuntza erauzi zaionean, ideiak zehaztasunez adierazteko bidea ere suntsitu zaio, eta hizkuntza menderatzailea izan ohi da hitzen adiera eta zentzua seinalatzeko duena. “Literatura vasca” nozioaren legitimizazio ideologikoa ezin da hizkuntzen arteko harreman linguistikoetan kokatu; ideien azokan aginterik ez duenez, euskaldunak ezin du bere interpretazioa gailendu euskararen bidez. Bretoi bat, bretoiaren gauzen frantsezatasuna ukatzen hasten bada, zorrotzat baztertuko dute edozein zokotako diskusiotan. Frantsesa baita, izan ere, diskurtsoaren jabe; bretoiak, bere diskurtso propioa eraikitzeko hizkuntzarik gabe, nola legitima lezake hau nahiz hura. Hori, bistan da, ezinezkoa da. Antzeko zerbait suertatzen da hemen ere, “euskal literatura” eta “literatura vasca”rekin. Diodan bidenabar, etimologiazko eta baliabideek ez dutela gauza handirik balio izaten horrelako eztabaidetan. Frogatu ezin denari, ezin da; eta ezintasunak ez du zer ikustekorik hizkuntzaren adierazpide linguistikoarekin, hizkuntzak diskurtso hegemonikoarekin dituen erlazioetan datza azken gakoa.

“Badirudi euskal literatura horrek dituen alde txarrak alde onak baino askosaz ere nabarmenago direla. (...) Jakina, euskal literaturak aurrenik duen alde txarra hizkuntza bera da, hobeki esan, hizkuntzaren tamaina”. (1981b, 262. orr.).

Arrazoi osoa du Koldok euskal literaturaren baldintzapen nagusia euskara dela aitortzerakoan. Harrigarria bada ere, gure artean zenbait euskal idazlek ez bide du uste horrelakorik; han-hemenka noizean behin entzun nahiz irakurri izan dugu kontrato irizpiderik. Holanahi ere, Koldok batipat euskaldungoaren txikitasunari, gure herriaren txiki izateari, baina kopuru zentzuan harturik, egotzi izan dio arazoaren zergatia. Eta, jakina, zenbatekotasuna batere gutsietsi gabe, egindo genuke, halarik ere, hizkuntza eta literaturaren txikitasuna funtsez nolakotasunari dagokiola, eta hark ez duela hau modu mekaniko batez zermolaketzen.

Euskal literatura euskaraz idatzitako hura besterik ez bada, zein da Koldorentzat euskal idazlea?

“Aitzitik Euskadiko jendeak —eta jakinaren gainean darabilt izen hau, *Euskal* herriaren lehen zatiaren bitartez nahastea sor ez dadin—, erdaraz, edozein erdaratan, idazten duten neurrian ezin daitezke izan euskal idazle; Euskaltzale sutsu agertzen badira ere, *erdal* idazle dira. Horrela, euskal idazle genuen Silvain Pouvreau; erdal idazle, haatik, Pio Baroja eta Jean de Sponde.

(,..) Raul Garridok, Kintanak eta bestek erabili zuten eztabaidan, diodanaren antzeko zerbait hartu zuten ontzat: *escritor vasco* ez da *euskal idazle-ren* ordaina, ezta hau ere harena”. (1981b, 260. orr.).

Gauzak garbi daude euskal idazle izateari dagokionez. Ikus dezagun orain puntu eztabai-garriago bat. Eztabaidarena, bestalde, Mitxelenak gogora erazten digu; bere hitzaldi edo mahai ingururen bateko lekuko gertatu zen gai korapilotsu hau, dirudinez.

Erdal itzulpenak sortzen dituen lehenbiziko istiluak. Duela zenbait hilabete, ez gehiegi, izan genuen eztabaida luxekoa, ea gaztelaniazko *escritor vasco* nola hartu behar genuen. Nik, gizaaxo honek (eta banituen zenbait kide), uste nuen aski zela deitura horren din bihurtzeko idazle izatea, alde batetik, eta Euskadiko seme-alaba, jaiotzez nahiz bizitzez, izatea, bestetik. Azkeneko baldintza honi, inoiz, ez hain aspaldi, euskotar izatea deitzen zatzaion, deitura edo deizioa orain, gehiegi esplikatzin ez diren arrazoiengatik, debekatua badago ere euskaltzale askoren artean”. (1981b, 260. orr.).

Ez omen dira gehiegi esplikatzin diosku Mitxelenak berea bezalako interpretazioak ez onartzeko. Ez gara gu hasiko hemen bestek behar bezala azaldu ez dutena azaltzen; haatik, auzia gehiago nahasteko gogorik gabe, hitz pare bat honeratu nahi genituzke.

Hor nonbait esana dugun bezala, kontzeptuok ez dira batere neutralak; hau ez da zientziaren eremu garbietan jardutea. Eta, hainbestean, hitzaren itxurazko neutraltasun deskriptiboaren azpitik, juzku ideologiko bilakatzen dira honen barrutian: ideia ideologikoaren balioa ez darama hitzunaren nahi-gogoak, diskurso desberdinen merkatuan batzuek eta bestek duten indar-erlazioan zertzen baita hitzak zer balio duen. Baina goazen adibide soil bat ipintzera adierazi nahi genuena uler erazteko. Demagun Frantzian badela espainieraz idazten duen idazlerik eta, bat ez ezik, taldetxo ederra ere bai; frantsesek horiei nola deituko liekete? Agian, *écrivain français*? Ez dirudi. Badakigu jakin Koldok idazleen nongotasuna adierazi nahirik dabilela “*escritor vasco*” deitura; baína, pentsatzekoa da, eta berarekin bat ez zetozenak delako eztabaida hartan apika horrela hartuko zuten, deitura horrek lekua ez ezik besterik ere aditzera ematen duela gaur egun, hots, gaurko koiantura ideologikoan.

Mitxelenari batek baino gehiagok leporatu izan diote bere idazlan gehienak erdaraz idatzi izana. Horri honako arrapostua doakio.

“Soziologoez bederen aise uler dezakete zergatik idazten dugun erdaraz maiz aski, zenbait egokieratan erdaraz mintzatzen garen bezalaxe”. (1975, 40. orr.).

Horiek horrela, euskaraz idazterakoan, euskarara itzultzerakoan bi maila ezartzen ditu garbiki Koldok: nolabait goi-mailako ikerketa eta teknikaren mundua, eta hemen ez du euskararen presentzia-beharrik somatzen; halaz ere, “Ez du horrek esan nahi gai horiek euskaraz erabili behar ez direnik”. Bere kabuz azal dezan utziko diogu.

“Baina bi gauza dira, eta arras bereziak, jakintza irakastea eta jakintza aurreraztea, edo aurrerazi nahian ibiltzea, gizon ikasi asko-jakina eta bilatzailea zeharo ezberdinak diren antzera. Munduan barrena dabilztan esku-liburuak. euskaldunen

ikasbiderako, itzultzeari eta haien gisakoak antolatzeari ezin hobeki derizkiot. Baina jakintza-arloan bila ari denak ezer berririk euskaraz adierazi? Zertarako? Kontatzen dakienak ez du horrelakorik egingo”. (1956a, 205. orr.).

Zentzuzkoa dirudi Koldoren burubideak. Hizkuntz plangintza baten lehentasun-ordenean gauzak planteatuta, oinarriko irakaskuntza osorik bereganatu ez duen hizkuntzarentzat bada go aurreagoko lanik goi-ikerlanetan erabiltzea baino. Beharrak beharra eraginik eskuratuko luke, eskuratzekotan, inoiz, euskara bezalako egoera diglosikoan dagoen mintzairak, eginkizun goitiarretan lekurik izatea.

NAZIOA ETA NAZIONALISMOA HIZKUNTZAREKIKO

Humboldten iritzian berezi ezinak ziren hizkuntza eta nazioa: “Hay reciprocidad e interacción entre la lengua y el pueblo: la lengua hace la nación, la nación hace la lengua”²⁸ Mitxelena ez da izan uste horretakoa. Nazioa edo etnia alde batetik eta hizkuntza bestetik jarrita, biren arteko harremanak honen ikuspegian uste izan ohi baino korapilatsuagoak dira. Ez lego ke harako korrespondentzia erabatekorik horien artean.

“No es, claro está, indispensable que un grupo étnico, una nación si se quiere, tenga una sola lengua ni tampoco que la que emplea le sea privativa, no común con otras colectividades. Tampoco es cierto, y sobran ejemplos que lo prueban, que la pérdida de la lengua traiga consigo la desaparición de la personalidad nacional. Por otra parte, en la adhesión del grupo a su lengua propia parecen notarse, antes y ahora, enormes variaciones.

Habría que añadir, además, que una lengua puede estar adscrita a un pueblo o país de muy diferentes maneras” (1984a, 157. orr.).

Mitxelenak beste lan batean adítzera ematen digunez, nazio edo nazionalitateak adiera desberdinak izan ditu lehen eta orain. Espainian XVI-XVII mendeetan zerabilten nazio-kontzeptuak ezer gutxi du ikustekorik egungo egunekoarekin. Orobat, kontzeptuaren adiera desberdinak Europen barrena ere aski ezagunak dira: ekialde eta erdialdekoak mendebaldekoarekin ez ornen du zerikusi handiegirik behialako J. Sarraile-en *Nationalität* eta *Staatsangehörigkeit* arteko desberdintasuna aipatzen duelarik bidenabar.

Naziotasuna, beraz, ezin murrítz daiteke hízkuntzatasunera. Hark eremu zabalagoa bersarka lezake une historiko eta herrialde ezberdinen arabera. Kapitalismoaren aroan burgesiak bere Estatu eraiki eta ezarri ahala, delako “hizkuntza nazionala” taxutu du; ez zen horrelakorik, hein berean bederen, feudalismoan gertatu. Alde honetatik so eginda, badirudi kapitalismoak, honek har ditzakeen izen eta eite guztiak barne direla, bateratze joera bultzatzen duela. Estatu modernoak, hots, kapitalaren metaketari dagokion barne-logikak, hizkuntz baterakuntzari bere baitan daraman osagaia dela dirudi, gizarte-egiturako atalen arteko nazioartekotze prozesua noraezekoa delako tendentzialki. Guztiarekin ere, Koldok ederki dioen bezala, naziotasunaren luze-laburrak areagoak dira hizkuntzarenak baino.

Hizkuntza, beste alde batetik, era batera baino gehiagotara elkarturik egon ornen daiteke herri edo nazioarekiko. Delako nazio edo Estatu hizkuntza horiek, dakigunez, erabilpenaren eremu eta funtzio guztietara moldatzen dira botere politikokoak hala nahí izan duenez gero. Horien aldamean egon daitezkeen hizkuntza ez-ofizial edo nolana hiko ofizialtasun gradua dutenak, mendeko hizkuntz eginkizunetara makurtu ohi dira. Hona, beraz, Koldok aipatzen duen egokitzapen funtzionala zertan den.

Euskal nazionalismoaren sorlekua Bilbo izateak honako gogoetaok eragin dizkio Mitxel-nari, nazionalismoa eta hizkuntza gaiari honela heltzen diogula.

“La lengua, tengo que insistir en ella, actuó como factor determinante, y remito al paralelo irlandés, precisamente por lo escaso de su uso: bastantes, no quiero exagerar, se sentían privados de algo que de haber sucedido de otro modo las cosas, les habría de pertenecer. ¿Hace falta recordar al primer Unamuno o al menos a uno de los primeros?”. (1984a, 654. orr.)

Euskal nazionalismoa eta euskara, horra auzi eztabaigarria. Zenbat buru, hainbat aburu, hau eta antzeko gaietan. Eta hori gerta ez dedin, gaiak aztertua egon behar luke gutxienezko zorroztasun teoriko batez. Bitartean nork bere azalpenak egiten jarraituko du: euskal nazionalismoaren jokabide línquísticoaren ezkutu-sakonak batzuek alderdi batzuri egotzi dizkiete, bestek besteri. Guk, besterik ezean, garai hartako euskaltzale porrokatu bati hitza utziz azalduko du-gu gure esku dagoena. 1935 aldera, “Aitzol” gogoangarriak, uste hauek argitaratu zituen:

“Bien poco es lo que en su favor puede apuntarse el renacimiento vasco respecto de la enseñanza en euskera. El esfuerzo realizado para conquistar la escuela no guarda proporción, desde luego, con el movimiento político, tan punjante. (...) Hace un par de años se ha decidido el nacionalismo vasco a tomar, con cierto calor, la cuestión de la enseñanza en euskera, fundando el ‘Eusko-lkastola Batza’²⁹.”

Desajuste ikaragarriak jasan izan ditu gure herriak, eta horien errainu garbia da praktika politiko eta hizkuntz jokabideen artean dagoena ere. Bilbon bezala euskalduntasuna errotik erauzia izan den tokietan, leherrenak eginik ere, baldintza soziolínquísticoek huts egiten dute; eta, jakina, ezin miraririk eska dakioke, baldintza materialak suntsiturik, aztarnategitik emetu den kontzientziari.

HIZKUNTZ BARRUTI ETA FUNTZIOAK: NONDIK-NORA BIDERATU EUSKARAREN ERABILPENA

“Las lenguas no son de toda evidencia organismos que se dijo durante decenios con el pensamiento puesto en algo que nosotros, ya sin valor mágico, designáramos de otra manera. Tampoco son mecanismos. Pero, soportadas por organismos y causadas por mecanismos dentro de un ámbito social, constituyen sistemas de alguna clase, sistemas que tienen una estructura, como decía Benveniste. Una estructura que es, y no creo que esto quede en mera imagen, homeostática”. (1984a, 650. orr.)

Inoiz gutxitan irakurri ahal izan dugu hemen Mitxelenak hizkuntzari buruz egiten duen deskripzio labur bezain egokirik. Inoiz gutxitan, alegia, hain hitz bakanetan, hizkuntzari buruzko irudi borobildurik: gizarte-organismoen euskarria alde batetik, barne mekanismoen egokitzapen-iharduera bestetik, eta gutzi hori etenezinezko osotasunean.

Horrelako bizi-baldintzetan hizkuntzak ez du iraungipenera joko. Baditu, izan ere, kanpotik eta barnetik (agian bereizketa hau maila teorikoan baizik ezin da egin) iraua ahal izateko adina indar eta egokiera. Baina, euskarari dagokionean, badirudi euskarri eta mekanismo horiek aspaldidanik hasi zirela usteltzen, eta azken urteotan, usteldura eta oinarrien pitzadura, erabatekoa gertatzen ari bide da zorigaitzez. Hitz batez, euskararen transmisioibideak bertan behera suntsitzen hasiak dira beren azken hondarrean, eta zerbait egin beharraren larria erne eta hedatu da euskaldungoaren zenbait sektoretan. Gerra aurretik abiatu zen mugimendua

gera horrek berak eten zuen, gerora hirurogehiko hamarkada inguruan zuzperraldiari berriro ekiteko.

“Garai batean, euskaldun izango ziren haurrak euskal giroan euskaldutzen ziren, etxean eta etxe inguruan. Euskal gizartearen habeak banan-banan behera zetozela ikusi genuen, ordea, eta euskara bide horretan barrena hondamendira zihoala, beste laguntzarik lortzen ez bazuen. Eta hasi ginen, beharrak beharra eraginda, gure umeak erdal giroan euskalduntzen saiatzen, ikastolaren bitartez, batez ere. Aspaldi erakutsi zigun hori Amatiñok. Artean eskola izan bada etxearen etsai, honela adieraz daiteke gure buruzpidea: bihur dezagun aurrerantzean eskola euskalduna etxe erdaldunaren, erdizka bederen erdaldunaren, kontrapisu”. (1978a, 166. orr.).

Goiko hauen antzeko gogoetak gaztelaniaz ere egin zituen Koldok. Ondorengo hauek euskara batuaren beharra eta premia eragin zuten arrazoiak azaltzerakoan izkiriatuak dira.

“El afán de renovación, el impulso que sin exagerar se podría llamar revolucionario, queda explicado por la ruptura de las bases tradicionales de la vida de la comunidad vascófona, y hasta de buena parte de la comunidad vasca sin acepción de idioma. Digamos por simplificar que el caserío y el campo en general entraron en una crisis que, por lo que acierta a entrever, parece irreversible. Al desaparecer, pues, los refugios de la lengua, ésta, si había de vivir, tenía que buscarlos en otra parte”. (1982a, 72. orr.).

Urteen poderioz, ertzetan lehenik barrenaldean gero, euskararen erabilpena desagertzen joan da; ezarian-ezarian batzutan, belaualdi gutxiren buruan bestetan. Nolanahi ere, egoera hori iraultzeko indarrak eta kemenik, guztizkorik bederen, ez egon arren, gune berriak aurkitu nahi dira diglosiak jota dagoenarentzat. Honela adierazten zuen ideia hori frantsesez Koldok.

“D’emblée, il est nécessaire de trouver à une telle langue un espace abstrait, un espace d’emploi et d’usage dans lequel, malgré la coexistence (qui n’est jamais tout à fait pacifique) avec les grandes langues voisines, elle puisse être toujours un véhicule valable de communication. Ce ne serait pas, cela va sans dire, le moyen de communication, sauf à admettre un bouleversement universel qui, dans cet ordre des choses, ne semble pas prévisible”. (1981c, 992. orr.)

Mitxelenak beti uste izan du gurea bezalako hizkuntzen jomugak mugarri jakinak dituztela, ez dutela, gure arteko askok hala nahi izanik ere, goi-funtzioen artean nagusitasunik erdie-tsiko: horretarako arrazoi gisa, hizkuntzaren tamaina azpimarratu izan du maiz askotan. Horrek ez luke aditzera eman nahi, ezta hurrik eman ere, euskarak hizkuntz espazio berrien jabe izan behar ez duenik; ari da, Koldoren ustez, eremu berrietan barneratzen, bere kondaira osoan inoiz bere eskuko izan ez dituen eginbeharretan sarbiderik badu egun, apalki eta emeki bada ere.

“Gogoan hartu behar dugu ere, eta bere egiazko indarrean neurtu, euskararen sarrera lehen, agerian nahiz isilean, debekatuak zituen toki, ataka eta barrutietan. Hau nabariagoa da, eta honela aitortu beharko, hizkuntza idatziari gagozkiola”. (1978b, 44. orr.).

Gauzak, beraz, honetan daudela aitortu behar: kondairaren mende luzetan barrena baldintza diglosikoetan nola edo hala iraun duen euskara bere desagerepenaren atarira iritsi da eta, hil-etxera sartu gabe, ostera eremu bila abiatzen da galdutako batzu eskuratzeko eta inoiz bere eskura izan ez dituen beste batzutan sarbidea irekitzeko. Horretaturik, ordea, erabakiak hartu behar: zein barruti eta funtziori eman lehentasuna? Zeintzu dira horien artean eus-

kararen normalkuntzarako determinanteak, zeintzu bigarren mailakoak? Bistan da, auzi horretan datzala euskararen etorkizuna: hautapenari darion hizkuntz politikan erabakiko baita gure mintzaira zeharraren geroa. Gai honen inguru-minguru honelako gogoetak eskaini zizkion behiala kazetariaren galderari.

“Sigo pensando que, con todo, el antiguo ámbito familiar y el de la comunidad local sigue siendo esencial. Y sin eso, tenemos que convencernos de que no hay nada que hacer, de que todo lo demás es cuento. Y lo que yo pediría es lo siguiente: que la gente que estudia lo de Irlanda, que dice que estudia lo de Irlanda, se enterara por fin de qué es lo que pasa en Irlanda. En Irlanda el conocimiento del irlandés es bastante amplio, pero su empleo es reducidísimo. Y yo no quisiera que esto ocurriera aquí. Por lo tanto, creo que hay ciertos ámbitos, los tradicionales, de uso familiar, amistoso, coloquial, de comunidad local, que es necesario cultivar. Y que eso es fundamental”. (1981d, 36. orr.).

Kazetaria, elkarrizketa horretan, Xabier Lete genuen. Koldoren erantzuna jaso bezain laster, berriro zirika hasten zaio, erantzun horretan hutsuneren bat edo balego bezala. Badirudi Xabier harritu samarturik geratu dela Mitxelenak hizkuntz eremu tradizionaleraino damaien lehen-tasunagatik. Goiko zereginetan uste izan zegoela euskararen etorkizuna, horiek zuzen edo zeharka behoko funtzioei eragingo zirela eta, itxuraz, Koldok eskema “logikoak” hausten ditu bere irizpidearekin. Goazen hurrengo galde-erantzun pareta hurrenez-hurren ematera.

(X. Lete) “— Ahora bien, el problema es que mucha gente hoy no se conforma con ésto. Que cree que eso no basta.

— Ya lo sé. Ya sé que eso no basta.

— Incluso hemos dicho y repetido mil veces: sin instituciones políticas y administrativas propias desde las que impulsar el euskera, sin escuela en euskera, etc., el euskera no puede sobrevivir.

— Y estoy de acuerdo con eso. Si el euskera va a ser una lengua sin instrucción alguna frente a otra u otras cultivadas, desarrolladas, entonces va a sucumbir. Y nosotros necesitamos una enseñanza en y por medio del euskera. Yo hasta ahí estoy completamente de acuerdo. Pero la enseñanza, hoy por hoy, sube hasta donde? Y me refiero ante todo al empleo exclusivo del euskera como vehículo”. (1981, 36. orr.).

Elkarrizketa horretan bertan, gaiarekin jarraituaz, beste gauza batzu ere adierazten ditu. Hala nola, administrazioarena alde batetik eta komunikabideena, bestetik. Aurretik, ordea, berriro ere irakaskuntzaren arloaz iradokizunik egiten du.

“...Claro que el euskera deberá entrar en la Universidad, y en algunas Facultades no hay problema para que entre inmediatamente. Pero en la enseñanza, hoy por hoy, los niveles fundamentales son los inferiores... En la administración, por entrar en otro terreno, creo que el euskera debería introducirse a plazo relativamente corto.

(X. Lete) —Y en los medios de comunicación social?

(Mitxelena sonrîe). Bueno, eso dependerá de en qué manos se hallen los medios de comunicación social, no?”. (1981d, 36. orr.)

Horra Mitxelenaren ikuspegia euskararen sarbideari buruz. Oinarrizko erakunde eta esparruak ditu gogoan batez ere. Ez dirudi horiek, berak maiz aski esan ohi zuen bezala, nahi-

koak dírenik hizkuntzaren Osasuna bere onera ekartzeko. Halaz guztiz ere, ez du uste erabilpena bermatzeko bide egokiena goitik hastea denik: Irlandaren esenplua delata, hizkuntzaren ikaskuntza eta erabilkuntza, bi ibilbide gisa hautematen ditu inondik ere; elkarren osagarri, ez, haatik, nahitanahiez, elkarren pareko edonola eta edonon. Bi ibilbide horiek, horrela, nola-baiteko autonomia dute beren aldetik: biak elkarrekin gara daitezke, ez ordea halabeharrez. Atal honekikoa amaitu aitzin, zenbait adituren ikuspuntuak hona aldatu nahi genituzke Koldoren esanak testuinguru zabalagoan kokatzeko. Lehen-lehenik, Fishmanena dator eta, nik uste, bat datoz funtsean errenteriarren buruzpideekin.

Amerikar soziolinguista hau oinarrizko erakunde eta barrutiaz ari da; familia, auzoa, oinarrizko eskola, eliza eta antzekoez alegia. Eta zera dio horiekiko: “Ezin ordezkatzuko funtzioak dira horiek, beraz, jatorrizko funtzioei bere horretan eutsi nahi bazaie. Guztiz beharrezkoak izateaz gain, horietan berreskuratu behar dira lehen-lehenik: horiek gabe ez bait dago, astrofisika euskaraz ikasten dutenak gero eta gehiago izanik ere, belaunez belau transmititzen den jaiotzuntzako funtziorik.

Hain beharrezkoak izanik ere, ordea, ez dira aski familia, auzoa eta hasiera mailako eskola. Beharrezkoak badira izan, baina ez dira nahikoak: are gutxiago (gu bezalako) jende “moderno”arentzat”³⁰.

Bai Fishmanek eta bai Mitxelenak behetik gorantz joango litzatekeen joera-prozesu bat proposatzen digute, beti ere, zehaztuz, hori ez litzatekeela nahikoa izango. Kontua, guztiarekin ere, uste baino korapilatsuagoa gerta lekiguke, baldín eta Sánchez Carriónék seinatzen duen lege-tendentzia bat beteko balitz. Horren berri ematekotan, bere testu zabal samarra irauli behar genuke hona, eta bere luzetasunean, aski argigarria delakoan dakargu. Honela dio “Txepetx”ek.

“¿Qué queremos representar mediante este número? Algo muy simple: la idea del *movimiento uniformemente acelerado* que conduce en una diglosia glotofágica hacia el 0 de la lengua de origen. Si el número de funciones potenciales que yo realizo es 6 y las que actualmente cubro con mi lengua nativa son sólo 4, quiere decir mientras se mantengan las condiciones de uso lingüístico que provocan esta situación, la lengua ajena penetra en las funciones que todavía realizó en euskera con una potencia 1.5. Es decir: aunque el euskera sea mi lengua con los del pueblo, voy a comenzar a introducir el erdara como ‘lengua popular’ porque con los del pueblo hablo también de temas generales y nacionales que se han dado en erdara. Y lo que he hablado en erdara con los del pueblo lo hablará también en erdara con la familia. Un uso lingüístico desestructurado, desestructura también las funciones que el idioma realiza, contaminándolas y entremezclándolas de secuencias de la otra lengua. Y hay, desde la teoría de los espacios, una explicación clara para esto: y es que los espacios lingüísticos más interiores son infiltrados con facilidad por los espacios lingüísticos más exteriores, mientras que lo contrario no es cierto”³¹.

Batek esango luke, azkeneko testu hau aintzakotzat hartzekotan, irtenbiderik gabeko gurrpil zoro batetan murgildurik gabiltzala. Hain zuzen ere —zentzu komuna gidari—, oinarririk hasi behar dira gauzak eraikitzen, zimentuetatik alegia, ez teilatutik. Ez dago betere argi, ordea, zimentarriak lurtean dauden ala teilatu aldean, hau zentzu komunaren kontra baldin badoa ere. Lepoa jokatu behar banu, Txepetxek izandaten duen tendentziaren alde jokatu nuke: goitik behera datozela hizkuntz prozesuen determinazio-elementuak, eta ez alderantziz. Eta gauzak horrela izatekotan, familia, auzoa, eliza, lagunartea eta oinarrizko erakunde sozialetan euskara sartzearekin, lehengoan gaudela dirudi, itxurek besterik pentsarazaz badiezaigukete

ere. Agian, azken batean, eta hau da axola diona, ez dirudi hizkuntzen zoria erakunde edo esparru hauetan erabakitzen denik, harako borroka-arlo hartan baizik: hizkuntzak, aurrera ala atzera, indar erlazioen nondik-norakoa zertzen deneko arloan egiten dute itxuraz, eta hori ez da egitura eta erakunde jakin batzutura bil daitekeen izaera, borrokagune etengabea mami-tzen denekoa baizik. Hemen, nik uste, botere linguistikoaz ari gara, eta botere hau gauzatzen deneko arloaz. Botere linguistikoaren eragina, dena esateko, ez dirudi behetik gorakoa izan behar lukeenik; eta ez, jakina, botere kontzeptua inongo goi-tontorrari erantsi nahi diogulako. Kontua ez da irudikapen espazialaz argitzekoa. Bukatzeko, zera itsatsiko genioke, gure go-goeta nahasi honi: hizkuntz tendentzien ezarpena botereguneetarik kontrolatuak egotekotan, eta hori pentsatzea zentzuzkoa dirudi, oinarrizko funtzioetan ez ezik, euskara, goi samarre-koetan ere kokatu beharko dela, bestela behekoen eragina eta indar apurra, Txepetxek dioen gisara, goikoen aldetik ezabatua eta suntsitua geratzeko arriskua bait dago.

EUSKARAREN EGOERA ETA ORDEZKAPENAREN MEKANISMO EZKUTUAK

Lehendabizikoz euskararen egungo egoerari buruzko Koldoren ikuspuntuak bildu nahi ditugu. Gure ustez, bi gauza berezi behar dira bere jarreran; inoiz euskararen aurrerabideak azpimarratzen ditu, gure hizkuntz azeregin formal (idatzizkoan, irakaskuntzan) batzutan aitzinatu dela erakusteko, bestetan, aldiz, eta egoera bere osotasunean harturik, euskara inoiz baino itolarriago somatzen du bere funtsezko zutabeetan.

Alde baikorretik hasiko gara, ugariagoak baitira besteak, ugariagoak eta luzeagoak. Honela mintzatu zen Bergarako ihardunaldi haietan.

“Iritziak eta usteak ez datoz bat, holako zerbait entzuten dut behintzat, gure erabateko egoerari buruz. Edozeinek, halaz guztiz, aitortu beharko du, gogorik ez balu ere, oraingo giroa hobea dela euskararentzat, hain hobea ere, duela hamar urtekoa, Arantzazuko bileraren garaikoa, baino. Pozgarri iruditzen zait hori, bake eta lasaitasun giroa behar baitu gure hizkuntzak, ezerk behar badu. Izan ere lehengoaren irudiko zapalkuntza berriren bat iraun behar balu, ez luke bizirik iraungo”. (1978a, 171. orr.).

Giro hobez mintzo zaigu. Giro horri esker euskarak inoiz burutu ez dituen urratsak burutu dituela, euskaldunok lehendabiziko aldiz ohartu garela gure egitekoaren larriaz, eta horrelakorik irakur daiteke, han-hemenka, bere obra jorian. Aurrerapausook, lehen esan dugunaren haritik, euskararen standardizazioaren arloan mamitu direla ohartarazten du, eta zuzen ohartarazi ere. Barne baldintzen egokitzapena noraezekoa izanik ere, Mitxelenak ederki aski zekien, hizkuntzen kanpo-historiaz ez zen alferrik saiatu noski, ez dagoela beti eta noiznahi kidesunetik bi kondaira horien artean. Zeren, Bergarako txosten hori bera, honela amaitzen du, inor lozorroan baldin bazegoen, iratzar zedin: “Ez gara gehiegi, ez gaude jakitez jantziegiak, hizkuntza larri dabilkigu, hilaginean ez badago ere”.

Euskararen kinka txit itogarria hauteman arren, ez du Humboldt eta “Ama Euskerearen azken agurrak”en egilearen antzeratsu hil-ezkilarik jotzen hasi nahi. Bere buruarekiko uste honek apurren bat argi lezake bere jarreraren muina: “Yo diría que soy un optimista crítico”. Ez du haatik, hizkuntzarik galtzen ez denik ukatuko: behinala X. Letek zera galdetu zion: “Una pregunta bastante terrible, aunque banalizada por haber sido muy repetida: crees que el euskera puede realmente perderse?” Eta bere arrapostua trinkoa izan zen zinez: “Toda lengua puede perderse”.

Gatozen gaiaren harira: euskararen egungo egoeraz ari gara hemen. Egoera hau bere makurrean areagotu duenetako beste datu bat aipatzen digu oraingoan: etorkinak, hain zuzen.

“Are gehiago. Azken aldiko uholdeak inoiz ikusi ez den adina erdaldun ekarri du gure artera, eta ez dira lehen bezala zenbait hiri eta eskualdean gelditu: mendi muturrik izkutueneraino sartu zaizkigu. Eta erdaldun diot, ez arrotz, jakinaren gainean. Hizkuntzaren aldetik, berdintsu baita, ez berdin, etxeko erdalduna eta erdaldun etorkia. Beste kontua da zer bide har dezaketen politikan bigarren gizaldiko etorkinek. Euskal herriko hizkuntzaz jabetzen ez diren bitartean, objetibuki don Karlosek ziokeenez, ez da bereizkuntzarik, euskarari dagokionez, han hemen jaiorika-ko erdaldun hutsen artean”. (1977a, 4.5. orr.)

Horiek Deian idatzitakoak dira. Ondorengo hauek Zeruko Argian.

“Herriaren artean, oraingo, gure hizkuntza ez doa aurrera: inora mugitzeko-tan, atzeraka dabil. Gaitz hori, ordea, ez dugu arestikoa, aspaldidanik datorren eritasuna baíno. Euskal literaturaren loraldiak, nik uste, ezin dezake horretan berehalako eraginik izan: eragin hori zenbait urteren buruan baizik ez da nabari izango”. (1972a, 58. orr.)

Goiko aipuan euskaldun izatearen funtsa euskara erabiltzean datzala dio, politikazko jorkabideetan erdaldunek, kanpotik etorriak nahiz barrukoak, alderik izan badezakete ere. Bigarrenean aipagarri deritzagu agertzen duen gauza bati: literaturak, maisu-lanik gorenena mamitu arren, ez lukeela hizkuntzaren egoera itxuraldatuko. Bere etekinak luzarora dasdatuko direla, baldin badatoz. Gure arteko zenbaiten liluramena zapuzturik laga du Koldok: egia osoa esateko, “ilusio” hori garai batean ez bezala, orain bertan behera ahortzen ari zaigu errealtatearen pisuz. Ohartu samartuak gaude, hizkuntzen berezko bikaintasun ere berrietan idatziriko maisu-obren indar zerutiarra aspaldí hasi zela antzutzen. Eta oharturik ez zegoena, itxuraz, Verdryes jauna zen, frantsesaren dohain paregabeaz txunditurik bait zegoen. Baina irazartzeko lan hori ere hartu zuen Koldok, besteak inoiz entzungo ez bazion ere.

“No sabía que sus sueños imperiales iban a tropezar pronto, sin salir de las cercanías, con una barrera infranqueable por obra de factores tan culturales, entre otros, como Patton, la VI Flota y la General Motors”. (1974a, 183. orr.)

Atal honetan, euskararen oraina zertan den azaltzeaz gainera, honetara iritsi aurreko ordezkapenaren prozesua zer-nolatan suertatu den ere jakitera eman nahi genuke Koldoren ahoz. Berak esan ohi zuen ez zituela gauza berberak aditzera ematen, euskararen egoeraz ari zenean, euskaraz eta erdaraz. “Zaloña” delako bati ohar hori egin zion behin: “Hots, gure hizkuntzaz, erdaldunen aurrean mintzatzan naizenean (euskaldunek ere irakur dezaketelarik, noski), ez ditudala aipatzen ere izan ditzakeen ahuleriak eta gaitzak”.

Beste leku batean ikuituko ditugu euskararen mugak eta atzerakadaren nondikakoak. Ordezkapena, ertz-mugetako ukimenak eragina eta sortua izan daiteke, baina bada Koldorentzat, oker ez bagaude, faktore erabakikorragorik erdarak euskarari bere lekua kentzen dioneko burruka latz horretan. “Barneko galera” dauka, izan ere, arrazoi nagusizat. Ikus.

“Eta azkenik, ordenak axola kentzen ez diolarik, barneko galera dator, Iruñea eta antzeko hirietan.

Gertakari hau, Gazteizen XVI. mendean nabaria, izan zen luzarora, eta ongisko dakigunez, aldaketen arrazoi nagusia”. (1978b, 35. orr.)

Oraintsu esan bezala, erdaraz ari zenean, ez zituen beti euskaraz adieraz zitzakeen uste eta iritzi guztiak jakin erazten. Beude horretan euskarazkoak gai honekikoan, eta betoz erdarazkoak, nahiz eta apika aburu jakingarriren bat isilpenan geratu. Diogun, beraz, “barneko galera” agertzen zaigula ordezkapenaren motorrik eragileena bezala; bere izatearen funtsa,

ekonomiazkoa litzateke hor, hirigintzari loturik ageri den merkatalgintzaren iharduera, bestela esateko. Datorrenean, kanpoko faktoreak nabarmentzen ditu; hizkuntzen elkarrekiko gainjar- tzea, bide horretan, bortitza bezain behartua izan bide da. Horra.

“La adecuación deja de existir, y las dificultades (dificultades tan graves que pueden conducir al cambio de lengua) empiezan cuando las condiciones de vida de la comunidad cambian bruscamente siempre o casi siempre por la injerencia de factores exteriores. Este es el caso típico de las lenguas indígenas de cualquier parte del mundo enfrentadas bruscamente con las lenguas coloniales, que no son simples sistemas incorpóreos, sino que van acompañadas de fuerzas mucho más eficaces”. (1971a, 152. orr.)

Horra hor hizkuntz kolonialismoaren funtsezko ezaugarrien agerbide bikaina. Ordezka- penaren mekanismoak, horiek horrela, hizkuntz zapalketa bereziari darizkion gisakoak izango dira. Guztietan ere, bada amankomuneko elementu bat; gizartezko nagusitasuna edo dei die- ziokegu, boterea, nahi bada, beroren zentzurik zabalenean.

Orain baino lehen ere egona da euskara desagertzenaren arrisku bizian, datu hau usu errepliatzen da Mitxelenaren lanetan; ez zaio nonbait bere ustez izan zezakeen inportantziarik aitortu izan erromatarren garaiko gertakizun horri. Gertakizun zen halere, ez gertatua, Euskal Herriaren zorionerako.

“Sea cual fuere la extensión que tenían estas tablas al empezar la influencia romana, es seguro que aquélla fue disminuyendo en los siglos siguientes y que la lengua llegó a estar en inminente peligro de desaparición, de la que sólo se libró por la descomposición del Imperio que por nuestra zona empieza a manifestarse claramente a mediados del siglo III de nuestra era”. (1960b, 38. orr.)

Ez da hau euskararen iraunpen harrigarria zeri zor izan zaion esplikatzeko tokia (beste atal bat eskaini zaio horri). Iraun badu ere, ez du osorik iraun: ordezkatua izan baita lurralde zabaletan barrenalderantz, ordezkatua “barneko galera” delakoaren kausaz, desagertzeraino ordezkatua Erronkari eta beste eskualde batzuetako euskalkia. Erronkarieraren iraungipenera berriro itzuli baino lehen, ordezkapen prozesu erak aipatu gura ditugu; bi ornen dira horiek, besteak beste.

“Hay dos maneras posibles, como dice MARTINET, de que una lengua desa- parezca: un dialecto que los azares de la historia han convertido en lengua oficial o literaria desplaza a los dialectos locales, unas veces por un proceso de conver- gencia que llega hasta la confusión completa, otras por la sustitución pura y simple. El primero es el caso, por citar un ejemplo próximo ya en buena parte también nuestro, del romance navarro-aragonés que ha llegado a derretirse prácticamente en el cast- ellano, como azúcar en el agua, a través de una serie de fases de convergencia creciente todavía mal estudiadas; el segundo, y sólo el segundo, el abandono de la lengua propia y la adopción de otra, cabía tratándose de la lengua vasca”. (1971a, 157. orr.)

Zilegi bekít, oraindik orain, lan hauxe egiten ari nintzenean hartutako oporralditxo batek Erronkari aldera eraman ninduten sentimenduen mendeko ipintzea: alde batetik, euskalki ba- tzu lurperaturik ikusi ditut, beste batzu hilerirako bidean (Aezkoa), eta gainera, bestetik, dela- to erromantze horretan oraino mintzo direnekin hitz egiteko parada ere suertatu zait Huescan barrena sartu bezain agudo. Erronkari aldean ibilia dugu Mitxelena 1964 inguruan, euskalkien ikerketei eskainitako lan batean esaten digunez.

“...Por eso vamos a concentrar la atención en la lengua del valle navarro de Roncal, variedad que se encuentra al borde de la extinción. Presenta, sin embargo, la ventaja de estar bien descrita, gracias sobre todo a Bonaparte y a Azkue, cuya obra no ha dejado de tener continuadores estos últimos años. Podemos, además, basarnos en un conocimiento directo de las hablas de Isaba y Uztároz, únicos puntos del valle donde quedaban informadores capaces de expresarse corrientemente en la lengua”. (1964a, 45. orr.).

“Txepetx”ek bere lana 1970 aldera burutu zuenean, ez zuen Koldoren sorterik eduki. Delako informatzaileak, azken agure hondarrak, bizirik zeudenean ozta-ozta ziren jadanik beren jaiotz-mintzairaz hitz egiteko gai. Hitzokin agurtu zituen “Txepetx”ek euskal lur haiek, are hun-kigarriakoak, datozen lekutik datozelako: “Descansen en paz junto a ella los restos de una lengua que durante siglos fué el cauce de expresión de este pueblo serio, trabajador, devoto”³².

Gure barrunbeak sentiera minez estaltzearekin, hain justu ere, ez goaz inora, Koldoren harako erreka hartara ez bada. Hobe dugu, beraz, buruz eta zentzuz jokatu. Horretarako bidea, bide ezaguna da: lehenik ezagutu ditzagun gauzak zergatik gertatzen diren gertatzen diren modura; gero, ahal izanez gero, aldaketaren lanari ekin. Oraingoz, gure xedea aurrenekoa da, eta horri lotuko gaitzaizkio. Lotu ere, duela hamarren bat urte Euskaltzaindiaren gidaritzapean argitaraturiko lan bikain baten eskutik. Hor, “Conclusiones socio-lingüísticas” izenburua daraman ataltxo batean, honelatsu zehazten eta argitzen da hizkuntz ordezkapena eragiten duen azken arrazoia. Merezi du bere luzean hona aldatzea.

“Como un resumen el más significativo acerca de la manera que se produce el fenómeno de la sustitución del euskara por el castellano:

Cuando a causa de la introducción de una lengua que cuenta con el apoyo del poder político, económico y cultural (que suelen ir juntos aquí como en toda experiencia colonial, ya muy estudiada) se comienza por producir una erosión de la lengua autóctona, y se termina siempre por la sustitución por otra. Es decir, que cuando se establece este contacto en una relación muy desigual de fuerzas, se llega a la sustitución.

Es la experiencia de siglos.

Esta querencia tiende a agravarse, claro es, con la introducción de los medios de comunicación de masas puestas a disposición de la lengua apoyada oficialmente.

A menos que se adopten medidas políticas de significado socio-económico y cultural equivalentes, los procesos de erosión conducen indefectiblemente, como decimos, a la sustitución”³³

Aho batez onartuko genuke formulazio hori tesi zuzentzat. Hizkuntza bat Mitxelenak dioen bezala “se conserva o se pierde por razones que tienen poco que ver con el reino del Espíritu”. Tesi horren funtsa, labur baherrez, honetara murriz dezakegu, bere muin sakonean: hizkuntz ordezkapenaren zertze-arauak hizkuntz merkatuan mintzaira batek eta besteak duten balorearen arauera gauzatzen dira, beharrezkoen den hizkuntza besteari gainjartzen zaiolarik. Hizkuntzen balio hori, jakina, ez da balio linguistikoa, hizkuntza bakoitzak bere oinarritzat eta euskarritzat dituen klase sozial eta Estatu-erakundeen mailan erabakitzen baita, eta bere balioa ezin da sozio-politikoa baizik izan. Hizkuntz azoka hori, zerbait izatekotan, hizkuntz harreman sozialak alde batera edo bestera makurtzen direneko burruka-leku bat izango litzateke.

Euskarak baditu oraino bere azokatxoak: beraz balia daiteke hiztuna honetarako edo hartarako. Baina, baliagarritasun hori urri eta murrizt zaio hiztunari, ekonomiaz eta bizimoduz baserri-herriren batera edo zokoratzen ez den heinean. Euskarak, bere alde ezarritako ordezkapenik erdietsi nahi badu, kapitalismo aurreratuari dagozkion hizkuntz azoken eskuko izan beharko du noizpait; ekonomia gailenduaren trukaketarako adierazpide, erakunde politikoetako kudeatzaileen lanabes, aparatu ideologikoetan komunikabide, etab.

GIZARTE KLASEEN HIZKUNTZ JOKAERA EUSKAL HERRIAN

“Gure arbasoek ez zuten, halaz guztiz, gogor hartu hizkuntza, nik axalekotzat jotzen ditudan kasu batzutan baizik”. Agintari asko arbaso baziren ere, arbaso guztiak ez ziren agintari izango. Eta agintari-arbasoen jokabidea axola zitzaion euskarari, ekonomi-egitura nagusien norakoa erabakitzen zuten arbasoen hizkuntz praktika, bestela esan. Agintaritzaren arloa ekonomiar mugatzen ez denez gero, gizarte-klase nagusien hizkuntz jokabidea orobat erabakikorra izango zen politika eta kulturazko erakunde eta esparruetan. Baina zeintzu dira, zinez, herri honek izan dituen klase nagusi horien hizkuntz praktikaren ezaugarri behinenak? Badakigu zertxobait gai horri buruz, ez, ordea, jakin behar genukeen guztia, ezta hurrik eman ere. Ea bada Mitxelenari jarraiki datu eta argibiderik iristen zaigun aztergai ilun honetara.

Gure agintariek, eta foruen garaiko agintariek ari naiz, ez ziren inoiz gehiegi arduratu ez euskaraz, ez euskal kulturaz, ezta, batez ere, kulturaren zimentari den irakaskuntzaz”. (197713, 59. orr.).

Bai, baina ez; ez, baina bai. Honela definitu behar ote dugu Koldoren jarrera gidari-klaseak euskararekiko hartu izan duten jokamoldeari dagokionez?

“No obstante lo dicho, sería injusto en sumo grado acusar a los vascos de los siglos XVI a XIX, incluso en sus clases más elevadas, de menospreciar la lengua. Aparte de que tal acusación quedaría desmentida por la tenaz adhesión que el pueblo ha venido prestándole, todos los vascos han sentido un orgullo desmedido por su idioma, orgullo que ha encontrado su expresión más conocida en las numerosas apologías que se han dedicado desde el siglo XVI”. (1960b, 15. orr.)

Agintaritza hezurmamitzen deneko instantzia gorena, erakunde politikoa izan ohi da. Institutuzio horietan betidanik gaztelania erabili izan da politikagintzarako. Baldintza horrek ondorio larriak zituen euskaldunarentzat; iharduera politiko hori, izan ere, itxirik baitzegoen euskaldun elebakarrentzat, honelakoak gehienago ziren garaietan.

Iztuetari, esate baterako, sinetsi behar baldin badiogu, eta ez da aspaldiko kontua, duela ehun eta hoge eta bost urtetako kontuak dira, Gipuzkoan seietatik bostek ez zekien euskara besterik. Halaz guztiz administrazioko eta politikako hizkuntza erdara zenez gero, seietatik batek bakarrik hartzen zuen parte behar bezala administrazio eta politika gaietan. Gutxien horientzat gauza atsegina izaten da horrelako aitzakia polita aurkitzea besteak baztertzeko eta gaitz erdi, nere ustez, baztertze hori, nahiz eta paperetan horrela agertu, gure artean sekula zeharo eta azken fineraino eramana ez izana. Bizkaiko Juntetan beti ari dira esanaz hango ordezkariak behar duetela erdaraz jakin eta agindu hori behin eta berriro oroitarazten baita, badirudi, aginduak gorabehera, hara bidaltzen zituzten ordezkariak gero ere ez zekitela erdaraz gehiegi”. (1981b, 266. orr.)

Goiko ideia horixe bera gaztelaniaz ere idatzirik utzi zigun Koldok.

“Se puede asegurar, con todo, que el conocimiento del romance era general entre los poderosos y constituía así en zonas euskaldunes (Guipúzcoa sería un ejemplo excelente) un eficaz instrumento de marginación política de la mayoría que lo ignora”. (1986a, 242. orr.)

Idatziakoaren ildotik eta ondoren datorrena kontuan harturik, Koldoren pentsaeran be-reizgarriak dira alde batetik agente politikoaren hizkuntz jokabidea, eta hemen klase nagusi batzuren posizio linguistikoa. Hura, zinez, euskaldungoaren eta euskararen arerio dakusa; hau, ez hain etsai, nolabait ere marko estatalaren mendeko hautematen duela dirudi, gainerako herri xehea zegoen zentzuan. Begira zer dioen merkatal burgesiaz.

Esta última (burguesía comercial), reducida aunque muy poderosa, encontraba la práctica de un sano y productivo mimetismo que llevaba consigo un profundo respecto por todos los usos y costumbres del país, incluida la lengua, compatibles con sus intereses”. (1971a, 159. orr.)

Klase gidaritzaz zeramatenen eremua, lehenago esan dugula uste dut, ez zen ekonomiaz-ko eta politikazko sailatar mugatzen. Kulturaren arloan egin zen hemen esperimendu aipa-garririk, eta horiek eye mintzagai ditu Koldok hizkuntzaren aldetik.

“Erdaraz mintzatu zen liburu horretan Villarreal de Berriz eta erdaraz mintzatu-ko dira Azkoitiko Zalduntxoak. Bascongada eta Bergarako Real Seminario zeritzana (Erret Mintegia, garbizaleagoentzat). Ez, egia esan, ez ziren beti eta erabat erdaraz mintzaten. Euskaraz ere mintzaten ziren, ongi zegokien orduan. Euskaraz jakin, berriz, ongi baino hobeki zekiten, Azkoitia edo Bergara aldekoek batipat. Izen ona du jauntxo buruzagiak euskal literaturan eta ez, nik uste, merezi duen adinakoa”. (1983a, 57. orr.)

Euskaltzaindiak argitaraturiko “Euskararen Liburu Zuria”n bada pasarte bat aski interes-garria auzi honekiko: euskararekiko klaseek burutu izan duten praktika, alegia. Luze samarra da aipua, baina asko lagun diezaiguke klase-hizkuntza erlazio horien korapiloa pittin bat as-катzen. Horra, beraz, besterik gabe.

“Euskararen eremuari dagokionez, esan daiteke, funtsean aldakuntza handirik gabe kon-tserbatu zela XVI. eta XVII. mendeetan. Bakarrík, XVIII. mendearen erdi aldetik aurrerako al-dakuntza korronteak eta komunikabide berrien urraketak eraginik, iduri du, euskara abiatu zela Araban gainbeherakada eta guttiagoan bederen Nafarroan, hiri giroko merkatarí handikien eta apezén mihietan heldu zen gaztelania hizkuntza ofizialaren faboretan. Kostaldeko probintziak bilinguismo egoeran bilakatu ziren, merkatal hiri handienak behintzat; hala-nola Bilbo, Donos-tia, Baiona. Baina probintziotan ere geroari buruzko egoera ez zen batere ona presentatzen; bistan bait zegoen erromantzea zela ekonomiaz eta politikaz nagusi zirenen hizkuntza, nola mintzatua ala idatzia, eta gainera, derrioreko zela administralgo karguetara heltzeko. Ohar daiteke, behin XVIII. mendiaren erdiaz gero, horietako burgesiari eta zuzendari klaseari atxi-kienik diren sektoreak badutela euskara baserritarren eta langile jende arlotearen hizkuntza bezala identifikatzeko halakoxe joera bat”³⁴.

Gauzak ez daude behar bezain argi, itxura denez, zeren goiko pasarte honi, lerro batzu atzerago, beste hau darraio: “Egia da, baita, behar dela gehiago zehaztu Euskal Herrian zu-zendari klase heterogeneo hark euskarari nahiz kultur autoktonoari buruz ukan zuen jarrera”. Ez dakigu zehatz-mehatz azkeneko ñabardura horren esanaldiak zer aditzera eman nahi duen; izan, botereko blokea taxutzen duten klaseen izakera beti edo, ia beti, baita heterogeneoa, ezinbestez izan ere. Testuak izan dezakeen irakurketa bakarra, guk uste, zentzu honetan hon-

du daiteke: boteregune hori osatzen zuten klase eta klase-eranskinen artean batzu besteak baino lotura hertsia goa zutela Estatuaren boteregune nagusiarekiko eta, hainbestez, neurri-
de horren araberrako jokabideak agertzen zirela hizkuntz kontuetan batzuen eta besteen aldetik.

Ñabardurak ñabardura, bere mezuaren hari orokorrean, guk onartuko genuke “Beltza”ren tesi hau: “Hecha esta salvedad, observamos que desde el punto de vista idioma-producción, el español es el idioma del sistema capitalista y el vascuence el idioma del sistema precapitalista; las relaciones sociales, económicas y políticas son tales que el español está ligado a las estructuras creadas por las clases dominantes, y el vascuence a la supervivencia continuamente amenazada de los campesinos y los pescadores”³⁵. Euskara bezalako hizkuntzen egoera izendatzeko “egoera minorizatu” edo “gutxitu” edo antzekoren bat erabili ohi dugu. Badirudi, termino horren bitartez, murriztapen prozesuren bat izendatu nahi genukeela; noiz-pait zabalagoa izan zenaren zer hori, mila kausa dela bide, hertsituz eta estutuz, dagoen egoera minorizatura murriztu dela. Prozesu luze bazain korapilotsu horren eragile mila kausa izango ziren, batzu besteak baino eraginkoragoak, ikusi ahal izan dugunez. Halaz ere, nik uste, osotasun irudi bat falta zaigu horretan, kausa-multzoaren gauzapena hezuramaitzen deneko osotasun-unitatea, nolabait adierazteko. Eta hori, hots, batasun-unitate hori alegia, gure ustez, zein izan den aipatu nahi genuke, “Beltza”ren aipuak zirikatatu gaituelarik. Produktzio kontzeptua ekarri digu historialariak. Nik produktzio-moduarena ipiniko nuke gure tesiaren ardatz-muinean. Azken mendeotako hizkuntza gutxituen kondaira hau, funtsean, produktzio-modu eta gizarte-formazio berrien, zehazki esateko, kapitalismoaren ondorioz burutu da. Sistema sozial honen baitako formazio berri horietan lekuri gabe garatu dira hizkuntz-herriak. Faktoreak ugari dira, baina denak elkarbiltzen ditueneko egitura sistema, bakar bat, eta bere baitan osotasun-unitatea taituzten du: ekoizpen modu kapitalista, hain zuzen. Ez nuke, haatik, eranskintxo haxe itsatsi gabe utzi nahí gogoeta hau: euskararen eta bere gisako hizkuntza askoren galbidea ez zela abiatu produktzio modu kapitalistaren aroan, egitura aurrekapitalistetan baizik, eta inoiz baldintza feudaletan ere bai, inondik ere.

Baina orduan, zer? Horrelatsuko egoeretan murgildurik dauden hizkuntz herri guzti horiek halabeharrezko patu gaiztoaren hatzaparretan amilduak daude betirako? Kondaira materialaren joan-etorriak ez du beste inolako zirrikiturik lagatzen “egoera minorizatu” hauentzat?. Bi ohar txo besterik ez genuke egin nahi galdera-sorta horri dagokionez. Lehenik eta behin, hizkuntza murriztu eta azpiratu hauentzat irtenbidea, dena delarik ere, benetan eta zinez gaitza dela. Areago: Europako herri askorentzat jadanik ezinezkoa dela ikus dezakegu, eta berriro diot, “ikus”, gure begi eta guzti, belarriek ez bait dute lan handirik ezer entzuteko Britaina eta Britaina bezalako herri askotan, hizkuntza menderatzailearen ahotsa ez bada behintzat. Beste gutxi batzutan (Katalunian eta) oraino bada itxaropenik. Bigarrenik, gizarte-sistema berriak (kapitalismoa) bere egitura, instantzia eta iharduera-eremuetan izan dezake “lekuren bat” mintzaira zokoratu hauentzat. Lekutxo horrek, ordea, ekoizpen-modu berriak itxuratu eta moldatu duen Estatuaren, eta Estatu hau taxutzen duten klase eta erakundeen aldetik jarrera-aldaketa sakona eskatzen du. Ez dugu hortaz ezinezkotzat joko hizkuntza hauentzat lurralde autonomo bat, hizkuntz herri autonomo bat bermatzen duen autonomiaz ari gara hemen, erdieste aldez aurretik galduntzat jo behar den aukera denik. Jarrera-aldaketa sakonaren beharra azpimarratu dugu oraintsu: aldaketa horrek, halere, kontrako erresistentzia neurtezina dituzte Aracilek dioten gisara eta, inondik ere, ez da bideragarria burruka latzen eta luzeen ondorioz baizik. Azkeneko datu haxe, zilegi bekit, berriro errepikatzea: “burruka latz eta luzeak”, zeren interes linguistikoak, ezin da ahantzi, klase eta nazio interes sakon eta errotsuekin bat eginik daude, guk besterik gura badugu ere. Eta horra gaitz izatearen zioa; ezinezkoa, herri askotara so eginik, oso urrutira joan gabe ere.

INSTITUZIOAK ETA EUSKARA: ESKOLA ETA ELIZA

Instituzio edo erakundeak ditugu oraingo honetan ikusgai. Baina, hori bai, aparatuok izan dezaketen adiera-zentzu zabalenean. Ea nola begiztatu izan duen Koldok hauen jokaera euskararekiko: zer leku eskaini dioten beren aterpean edota kale gorrian zenbat aldiz utzi duten. Horretara baino lehen, Joxe Azurmendiren hitzok dakartzat hona, euskaltzaleok erakunde horien beharra eta egitekoa nola ikusten dugunaren eredu izan daitezkeelako: euskaltzale guztiena ez bada ere, askoren aburuekin bat etorriko baita bertako mezua.

“Une honetantxe (1982) garrantzizkoena, ordea, euskara instituzioetan finkatzen ahalegintzea iruditzen zait. Hori da biderik normalena hizkuntza salbatzeko. Eta bide normaletik kanpora ibiltzea, goiz ala berandu, ordaindu egin behar izaten da. Bide hori geuk alde batera uzten badugu, oso posible da luzarora beste bide guztiak alferrik izatea”³⁶. Bat gatoz, nola ez, Joxeren proposamenarekin. Uste izatekoa baita, hizkuntzen bilakaera leku batzutan bestetan baino areago erabakitzen dela, eta leku erabakikor horien artean, instituzioak ditugula gailur. Berebiziko axola du, guk uste, euskara berrietan barne erabiltzea eta, bereziki, batzutan larriagoa da beharra, bestetan baino. Badirudi, izan ere, delako aparatu ideologikoetan sarbiderik, eta ez bigarren mailakoa noski, ez duen mintzairak ez duela atarramendu onik izango bere ibilbide neketsuetan: hemen, gailen, eskola eta irakaskuntza, informazioaren erakunde-sarea, eta ekoizpen kulturala langaitzat dituztenak ipiniko genituzke, batzu besterik ez aipatzeko. Ez da hau lekua ordea, gureak, Koldorenari aurrejartzeko; ikus ditzagun, bada, bere iritzi-usteak zer nolakoak ziren instituzioen hizkuntz betebeharra dela eta.

Instituzio politikoetan euskarak ez duela inolako lekurik inoiz izan; hori gauza jakina denez, Bizkaiko foruei eskaintako ohar txo hauxe besterik ez dakargu.

“Nik dakidanez gainera ez dago oraindik ere, eta ez da sekula egon (Bizkaiko Foruei buruz ari da hor). Gure lege zaharretan zaharrena eta begikoena, beraz, euskaraz sekula egon ez baldin bada, horrek zerbait adierazten du, alegia ez dela euskara izan, lehen adierazi dudana bezala, euskaldunen adierazpide eta mintzabide osoa, beti beste hizkuntzaren baten premian egon dela bere aldamenean”. (1981b, 265. orr.).

Hizkuntzen hedakuntza eta erropenerako orain arte Estatuak asmatu duen bitartekorik oparoena, dudarik gabe, Eskolarena da; mundu guztiak aho batez onartu du gertaera hori. Euskararentzat ere ez zegoen beste biderik: “eta euskaraz irakatsi behar euskara biziko bada”. Euskaraz irakasteko, berriz, Eskola bere eskuko behar euskaldunak, neurri batean behinik behin. Eskola, ordea, hizkuntza menderatzailearen zerbitzuan egon da mendez-mendez; eta eskola ereduaren klase-edukinetan sartu gabe, batzuek eta bestek, bertako hizkuntza gutxietsi eta zapaldu dute, dirudienez.

“Eskola euskararen eta euskal gauzen etsai izan zen garai hartan bertan ere, batek baino gehiagok dioenez, eta etsai segitu du izaten, gero eta etsaiago, orain-tsu arte”. (1977b, 59. orr.).

Baina, esan bezala, ez eskola mota bat, bestea ere hura bezain etsai izan duelako euskarak; hobeki esan, euskaldungoak, eta egia osoa esateko, Euskal Herriak.

“Estatua, eta Estatuarengandik zetorkigun irakaskuntza, etsai ornen genuen, hizkuntzaren eta euskal kulturaren etsai. Baina egia horrek hain egiazko ez den beste puntua zeraman ondotik: etsai dugu estatua, besteak (erlijio ordenei buruz mintzo da hor) ditugu, beraz, lagun eta laguntzaile. Hori, salbuespen guztiak salbu, gezurra zela, ordea, guztiok dakigu, bai haurrek, bai gurasoek: geure buruak zuritzeko asmatu genuen gezurra”. (1977b, 59. orr.).

Instituzioen aldetik euskal gauzak nolako harrera izan zuten jakiteko, ondoko erakusgarri hau aski eta gehiegi izan daiteke.

“Martín Yáñez de Arrieta, maestro de Azpeitia, presentó a la Junta general celebrada en esa población en 1609 su versión de la cartilla del padre Ripalda, versión que fue sometida a la aprobación de las autoridades eclesiásticas. Sin embargo, obtenida ésta, la Junta de Villafranca del año siguiente “decretó y mandó que no ha lugar lo que pide el dicho Martín Yáñez de Arrieta”: lo que pedía era sencillamente que la Provincia pagara la cantidad (200 ducados), convenida con el impresor. Esta muestra de bárbara incomprensión de toda necesidad esperitual de la Junta guipuzcoana merece citarse junto a la actitud de los Estados de la Baja Navarra y de *Biltzar* de Labort con los proyectos del P. Bidegaray y de Etcheberri respectivamente. Aun así, las autoridades guipuzcoanas salen malparadas de la comparación, pues los últimos proponían planes de enseñanza innovadores y audaces hasta cierto punto, mientras que Arrieta sólo quería atender a la formación religiosa de carácter más elemental de los guipuzcoanos”. (1960b, 61.orr.)

Euskarak ezinbesteko sarrera izan bide zuten eskolan, “noraezean” esango genuke Koldorekin batera.

“Erraz igartzen da euskarak bazuela sarrera, noraezean, irakaskuntzan, beheko mailan batipat, eta hizkuntza mugatik urrutiago, gehiago eta zabalago. Ezin zitekeen, ordea, bitarteko baizik izan, eskualde bakoitzeko erdara batera edo bestera ikasi artekoa, erdara hori zela bide ikasten baitziren gainerakoak, hizkuntzak barne”. (1983a, 55. orr.)

Euskaldun elebakarrak nagusi ziren garai haietan, ez zegoen beste biderik. Aldez edo moldez, euskara presente zegoen eta erdara arrotz. Eskolarena, gaingiroki bada ere, honela labur dezakegu: hizkuntza arrotzen sarbiderako ez bazen, euskarak ez zuten inolako lekuriK izan aparatu-gailur honen barrenean. Haren alboan, irakaskuntzako bere eskuharmena dela bide, Elizaren protagonismoa ageri zaigu hizkuntz gertakarietan. Hastapenak behinik behin, ez zituen goiztiarrak izan euskaldungoarekiko atxekimenduan.

“Además, no es sólo que estuviera excluido de antemano el uso litúrgico de la lengua vasca: la incomprendible desidia que debió dominar durante largos periodos en todo lo referente ala instrucción religiosa hizo que, como veremos más adelante, el vascuence tuviera que soportar en la catequesis la competencia del latín y del romance, por extraño que esto parezca, hasta bien entrada la Contrarreforma”. (1960b, 13. orr.)

Herriarenganako hurbilpen hori, iritsi zenean, nolabaiteko babes eskaini ornen zion kristau erlijioak. Hori ere, ordea, zerharbidezko presioz areago, bestela baino: Mitxelenak behin eta berriro bereizten ditu, nolana ere, Elizaren hizkuntz portaera mendebaldean eta ekialdean. Geure aldekoen kaltetan, dudarik gabe.

“Euskaldunek, administralgo eta kultur erakunde ospetsurik ez zutela, irabazpide mardulik eskaintzen ez zuten hizkuntza bizitzen —nahiz hiltzen— utzi baino areago —ideietan beretan ere— egingo ez zukeen politikarik gabe ere zirela, erlijioan aurkitu zuten laguntza moduko zerbait osoki eta sustraietaraino kristautu zirenetik. Mende haietan, haatik, Batikano II. kontziliara arte bezalaxe, Mendebaldean, Ekialdeko Elizan ez bezala, ameskeria zen nazio hizkuntzaz eginiko liturgia. Gisa honetako aukera XVI. mendean etorri zen, Erreforma protestanteaz. (...)”

Hala ere, kalbinismoaren hedadura, eginahal huts bihurtua, hizkuntzaren aldekoa izan zen, erantzun katolikoa bultzatu zuelako besterik ez balitz ere. Orduantxe hasi ziren gure elizgizonak herri hizkuntzazko katekesiaz arduratzen; edota, hobeki esan, haien interesa eta kezka, 1600.etik aurrera, anartean ametsetakoak ziren gailurretaraino heldu zen". (1978b, 31. orr.)

Mitxelenak adierazten diguna, gai honetan, zera da: Mendebaldeko Elizak herriaren presioz baizik ez zuela bere hizkuntz jokaera aldatu —"No hizo sino ceder a la presión popular". Larramendik ez ezik Odón de Apraiz-ek ere salatu izan du erdararen ezarpen bidetan elizgizonek jokatu duten papera: maiz askotan izan dira, maisua eta idazkariarekin batera, erdararen ordezkari eta agenterik emankorrenak. Azkeneko honen testu batzu arakatuz, euskarak Araban izandako atzerakadaren faktore nagusitzat elizgizon erdaldunen presentzia azpimarratzen du: "Elizgizon erdaldun edo erdazaleak eta mugaidetasuna hartzen ditu kontutan, arrazoi nagusi gisa".

EUSKARAREN IRAUPENA: MIRESGARRIA BEZAIN AZALGAITZA

Euskararen kondaira soziolinguistikoa behar bezala estudiatua dagoen unean, edota Koldoren terminologia erabiliaz, gure hizkuntzaren kanpo hiztoriaz behar adina datu eta interpretazio dugunean, agian jakingo da zeri zor dion euskarak, azken finean, bere iraupena. Euskalari eta linguistez gain historiaren arloan jardun duenik bada iraupen horren azken zergatiak zer izan litezkeen bere interpretazioa eman duenik erabilitako ikerbide desberdinen arabera. Mitxelenarentzat, dena den, bada oraino azalpen horietan akatsik eta ahuleziarik; ez du inor, izan ere, ase-bete.

"Bitarik bat hain zuzen aipatu dudana hizkuntza da. Izan ere, mendebal-alde honetako gainontzeko eskualdeak hartzen baditugu konporaketarako, ez da gurea izan ezik aspaldietako hizkuntzarik mintzaira indoeuoparren bultzadaz, eta latinarenaz azkenik eta batipat ito ez denik. Nornahik aski harrigarri deritzo iraute etengabe horri, eta horrela iritzi behar ere. Artean bederen ez du inork, jende pilo saiatu delarik, esplikazio oso-beterik aurkitu". (1983a, 49. orr.)

Gauza jakina da, alde hauetako hizkuntzen historiak iturri fidagarriak dugun neurrian, egin-kizun goitiarrak beti latinari ez bazegozkion besteren bati zegozkiola. Hortik ondorioztatu izan da, neurri batean edo bestean, egoera diglosikoaren mendeko izan dela euskara bere etxean. Baina nolako depentzentzia sortarazten zen egoera horretan euskara eta beste mintzairaren artean?

"Beldur naiz, haatik, ez ote ziren gauzak bestela gertatzen gurean, ez baitaiteke izan azpiko eta morrontzako hizkuntzarik mendez-mende iraungo duenik gureak bezala". (1983a, 49. orr.)

Iraupenaren misterio ezkutuak argitu behar badira, eta ez du ematen hori gure esku dagoenik, erromatarren garaietarik hasi beharko da, lokarri zaharra etenteko arrisku bizienak, oraingoak gorabehera, orduantxe agertu bait ziren. Behinola, irratiko esatari baten galderari, erantzun luze hau eskaini zion gure maisuak misterio horien hari gordeak pitin bat ehuntzen hasteko.

"Iraun du dirudienez e... nola esango nuke nik; hitz egiten ere eremuaren bihotzean, eta inguruetan berriz galdu egin da. Herri puntua edo nahi duzuna, ba hemen inguru honetan (Iruñean) zuen. Beraz hori ez da harriztekoa hortik kanpora galdua

izatea. Harritzekoa da zergatik irau duen irau duen lekuetan. Eta hortaz ba galdera edo erantzun asko eman diguzue, baina ezta irau duen bat ere gogo betekorik. Zerbait esplikatzan dute, bueno gure artean. Esan nahi dut euskerak irau duen lekuetan, esateko moduan, hiririk ez zegoela. Gero erromatarren garaian, bueno, erromatarren garaian azken aldera eta gero urren etorri diren mendeetan, ba hemen gure jendea, ba bere buruaren jabe bizi izan dela”. (1983b, 6. orr.)

Erromanizazioak berarekin ekarri zuen bizimoduaren aldaketa izan ornen zitekeen euskararen herio-iturri. Aldakuntzaren barranean elementu aipagarria: hirigune nagusien errainuak landa-bizitzara hel zitezkeen, eta horien artean joan ohi zen hizuntz ordezapenaren osagaia ere. Alde horretatik, gurean erroturik zeuden hiri nagusiak, ez bide ziren hainbestekoak.

“Esan dezagun latina edo erromantzea nondik etorri zitekeen. Ba bertako hirietatik edo ingurukoetatik. Bueno, bertakoak, badakizu, aski gutxi zirela. Ia horko zuen Iruña zerekoa, Arabakoa, eta oso berandu badirudi Laburdin, delako hori... Baina, baina berandu. Eta hoiak ez ziren, noski, ikaragarritzko hiriak berak ere. Eta hortik kanpora, ba latina edo erromantzea ekarri zezaketen lekuak urruti xamar zeuden hemendik. Esan nahi dut bai Tolosa, bai Bordele, bai Zaragoza... esate baterako beraz badirudi, gu, zera, horko garai hartako korrante nagusietatik urruti xamar bizi gine-la”. (198313, 6. orr.)

Hirigintza aipatu du hor Koldok, eta bere ezker-eskuin datozen kultur eta ekonomiazko eraginak. Orain artekoari bagagozkio, halarik ere, euskaldukoa bizi zeneko isolamendu-elementua da faktore ororen buru. Elementu honek bi eratara jokatu zuen nonbait; euskararen iraupenari eutsi zion, baina behaztoharri erabakikorra gertatu zen idatzizko zereginetara iraganaz status ofiziala erdiesteko.

“Guri dagokigunez, bakartasunak edo berezitasunak bai hizkuntzaren alde eta bai kontra eragin du. Berezitasun nabariak, besteekiko izate bakanak, hizkuntzaren iraupenaren alde bulkatu du, eta honela aitortu dute auziaz arduratu diren guztiek. Bertan behera utzita gal zitekeen bakarrik (horretarako elebitasunezko denboraldia behar, luzeagoa nahiz laburragoa), ez ordea bere ezaugarriak galdu ahala inorenak bereganatzen dituela antzeko beste hizkuntzekin nahas. Aurkakoa izan du, berriz, idazketa zailtzen zion aldetik, lehenbizi, eta kanpoko laguntza ezak lantzea eragozten ziolako gero”. (1978b, 30. orr.)

Isolamendua azpimarratu dugu hizkuntz iraupenaren eusle irmo gisa. Hori, ordea, neurri batean da egia osoa; euskaldungoaren lurraldea igarobide ere bai baitzen era berean. Nola-nahi ere den, oraingoz alekazko esplikaziorik baizik ez badugu ere, horien artean lehen mailakoak eta bigarrengoak bereiztea litekeena dela dirudi.

“Nahitaez miresgarri gertatu behar honelakoa igarobide zen lurralde batean suertatzea, Mendebaldeko erromar inperioaren barren-barranean, orduko ere zabalgoaz eta bizilagunez txikia zen lurraldean. Gainera, ez dirudi gizarte hark gogorregi egingo zionik errornarren oldarrari. Zerbait badago argi: hararteko bizimoduari eustea lortu zuen eskualdea ezin deskulturizatu izan zuten, errornarren antolamenduak garaiz lur jo zuelako eta inguruetako bizimolde hiritarra, gutxi hazia, gainbehera hasi zelako”. (1978b, 33. orr.)

Euskarazko aipueta badirudi zertxobait argi geratu dela. Gaztelaniazkoetara igarotzerakoan, lehenik, jadanik ikuitu diren interpretazio batzu berragertuko dira, baina halere merezi duelakoan nago hona aldatzea.

“Sobra subrayar que la lengua vasca, el *euskara* según su propio nombre, es y ha sido conflictiva. Su misma longevidad, su supervivencia hasta el día de hoy, supone conflicto: no olvidemos que ha sido para todo fenómeno sorprendente, ya que según cualquier previsión razonable debía de haber ya dejado de hablarse hace más de milenio y medio (y me quedo corto en la estimación), es decir, antes de que la administración imperial romana quedase gravemente lisiada por repetidos ataques de hemiplegia. Cito tan sólo un pronóstico reciente, elaborado por persona autorizada (si es que alguien está autorizado a pronosticar en tales materias), ya que lo formuló Guillermo de Humboldt hace más de 150 años: para 1900, opinaba, no iba a quedar de la lengua vasca más que lo que hubiera llegado a fijar por escrito”. (1982a, 55. orr.).

Euskararen iraupen etengabe horrek, segur aski, ez dio ezertxo ere zor inoizko eta inolako mirariri; arakatuak hobeki arakatzeari eta ikertu gabeak ikertzeari beste biderik ez zaigu geratzen, hortaz. Gaztelaniazko testuetan badu Koldok beste elementu baten aipamenik; irudi du, gainera, funtsezko argibidea gerta dakigukeela garai hartako hizkuntza fenomeno argitara ateratzeko. Gizarte antolamenduaz ari zaigu hor, eta horrek hizkuntza mailan izan ditzakeen ondorio sozialez.

“No es dudoso que el vascuence se conservó, ya desde la época imperial romana, en la medida en que no fue destruida la sociedad gentilicia a la que servía de instrumento de comunicación, y de instrumento muy útil a juzgar por el apego que le manifestaron sus usuarios. Algo debió de quedar de esta sociedad gentilicia o tribal, aunque dominada acaso y oculta casi siempre por realidades y apariencias más modernas, en el reino de Navarra, a partir del siglo IX, y en entes políticos como pudo ser más tarde el señorío de Vizcaya”. (1982a, 61. orr.).

Gizartekerez ari zaigu hor Koldo. Hizkuntzaren garapena eta moldapena gizarte egitura eta produkzio-mailari, ezin ukatuzkoa da. Gizartekera horretan, bere produkzio indarren garapen ahula dela bide, euskara aski eta nahikoa zen: ez, ordea, erromatarren egitura administratibo eta ekonomikoarentzat. Datu honek ez du ezertxo aldeztzen hizkuntzaren gainegiturazko izakera defenditzen duen tesia. Bidenabar, ordea, datu empiriko anitz eskaintzen ditu gizarteformazio eta mintzairaren arteko korrelazio estua dagoela egiaztatzeko. Guzti honek, kontuak kontu, ez du zer ikusirik marrismoarekin, eta Mitxelenarentzat hain iguingarri den estadioen teoriarekin.

Noan utzitako auzira hari punta hauek lotzea ez bait dagokio neri bezaleko afizionatuari. Ehuntzen hasitako interpretazio-sarea amaitzeaz dago erromatarren aroari doakionez; horra, bada, Mitxelenaren aburuz, euskarak bere alde eduki zuen defentsarik irmoena eta sendoena.

“La principal defensa de la lengua estuvo sin duda no en la fuerza, sino en la misma debilidad e insignificancia militar y económica del país y de sus gentes. El retraso cultural, en contraste con lo que ocurrió en zonas más progresivas, hizo mucho menos seductora la atracción del latín. Y el género de vida primitiva y rústica que en él se conocía no era adecuado para provocar la inmigración de gentes de habla latina, acostumbrados a otros modos de existencia”. (1964a, 82. orr.)

Euskaldungoaren historia ez da noski erromatarrekin ahitzen. Etorriko dira aro berriak, etorriko tirabira eta etsai berriak. Erromatarrena, militarki bederen, une egokian suntsitu zen euskararen jarraipenerako. Euskararen arriskuak haatik ez ziren desagertu: aitzitik, okerragorako bidea hartu zuten gero ondoren gainera etorri zirenak. Hain da hori egia, non euskararen zoria ondorengo epealdian erabaki zela dioskute ikerlariek.

“Pero, lo que decide el porvenir de la lengua, como ha tenido el acierto de señalar Caro Baroja, no es la época romana, sino el período posterior. La romanización lingüística de Galia e Hispania no se interrumpe con las invasiones, sino que prosigue y se consolida definitivamente entonces. Los vascos, por el contrario, que aceptaron la dominación romana sin mayor resistencia y se ganaron así sin duda un lugar cómodo para vivir dentro del nuevo orden político, se niegan radicalmente a admitir, “ni siquiera teóricamente” dice Caro Baroja, el dominio de visigodos y francos. Las causas de este rebeldía, que se mantuvo pertinazmente durante siglos, seguirán siendo ocultas para nosotros, pero no así sus consecuencias, que todavía hoy saltan a la vista”. (1964a, 83. orr.).

Hizkuntzen hedakuntza eta ezarpena, ordea, ez da soil-soilik indar militar eta politikoen betekizuna izan halaberharrez. Mendebaldeari dagokion neurrian behinik behin, Eliza izan du latinak bere erakunderik irmoena mendeetan zehar. Horretan dago Koldo: “En lo oral, es evidente que el latín seguía siendo una lengua internacional válida, apoyada por todo el aparato de la Iglesia católica”. Horra beraz indar erlijiosoak ere euskararen etsai, lehengoak gutxi baziren. Gerora jarrera hori aldatu zuen Elizak, baina bitarteko mende luzeetan hizkuntza menderatzailearen mirabe izanik. Aldakuntza, beste atalen batean arakatuko den bezala, mintzaira menderatuekiko amoregatik baino areago egin bide zen bere interesen arabera: interesak, bestalde, ez dira izpiritu hutsekoak izan ohi Eliza delako aparatu horren barrenean ere.

En el occidente europeo la cristianización remató a menudo lo que la romanización pagana había dejado quebrantado. En nuestro país, en concreto, se diría que el Cristianismo no aparece como apoyo de la lengua del país hasta la edad moderna, a causa sobre todo de la confrontación de la Contrarreforma con la Reforma”. (198413, 162. orr.).

Euskara ordezka zezakeen hizkuntza, latina alegia, aparatu ideologiko boteretsu horren esku zegoen. Beste indar sozial motek lortu ez zutena lor zekakeen inbar ideologikoak. Euskaldungoaren onerako, ordea, kristau erlijioak izan zituen bere ezarpenbideetan nolabaiteko eragozpenak.

“Como el latín fue en lo esencial, y hasta muchas veces en lo accesorio, la lengua de la Iglesia occidental, hay en nuestros países una clara relación entre cristianización y romanización, patente por ejemplo en la Gallia o en Britannia. El que el latín no consiguiera imponerse como lengua de la totalidad de Vasconia hace, por lo tanto, pensar que la cristianización no estaba demasiado avanzada entre nosotros, lo cual se concilia perfectamente con el hecho bien conocido de que el cristianismo fue durante los primeros siglos un fenómeno urbano”. (1986a, 239. orr.).

Kosta ahala kosta, hor iraun du euskarak, aspaldidanik atzeraka baldin badator ere; etzeraka lurraldez, barnelaldeak galduz, industrigintza eta aro modernoaren bultzadaz, besteak beste. Bere iraupen harrigarria esplikatzeko, Koldok erakunde edo instituzioen datua ere aipatu izan du. Zuzen edo zeharka, nolabait ere horien aterpea somatzen du jarraibide neketsu horretan.

“Puedo equivocarme, pero creo ver cierto paralelismo entre la conservación de las instituciones propias del país y la conservación de la lengua. Al romperse el largo (aunque no total) hiato documental de la primera Edad Media, las instituciones van saliendo a la luz, como brotes silvestres, lo mismo que la lengua. Luego (la formación y el desarrollo del reino de Navarra es excepcional) van adquiriendo contornos mejor definidos hasta alcanzar los que, con formas sólo en apariencia invariables, van a tener durante varios siglos”. (1971a, 158. orr.).

Iritsi zen zeruak eta lurra astindu zituen Iraultza frantsesa ere. Ordukoz, Mitxelenaren us-tetan, ez zuen ondorio larriegirik izan; gauzak zeuden zeudenean laga ziren euskarari zegokionez Ipar aldean. Horra iraupenaren katea ez eten izana esplikatu lezakeen beste lekuko bat Iparraldeari buruz.

“Si toda Vasconia tiene la reputación de ser un país conservador y refractario a las novedades, esto resulta especialmente cierto al norte de los Pirineos: el efecto de los acontecimientos políticos franceses se ha reducido a poco más que al cambio de algunos símbolos y a la sustitución de algunas denominaciones en los documentos oficiales”. (1960b, 91 orr.).

Orain arte ikuitu ditugunaz gainera, Koldoren lanetan agertzen dira beste faktore eusle batzu ere. Hala nola, esaterako, hurbiltasun-urruntasun interlinguistikoa bata, eta hizkuntz atxekimendua bestea. Ameriketako euskaldunen baitan euskarak erro luzeak zituela eta, hango euskararen iraupenaz behiala Tovar-ek zera idatzi bide zuen: euskararen izate bereziari zor ziola, inguruko hizkuntzekiko urruntasunari alegia, belaunaldiz-belaunaldiko iraupen hori hango testuinguruan. Ameriketara joaniko euskaldunen artean euskararen transmisio familiarra, alabaina, ez du izan behar hain katea sendoa, aspaldidanik eteten hasitako lokarri ahularen antz gehiago duelakoan gaude. Urruntasun interlinguistikoaren zera, beste aldetik, ezin ornen da sobera handietsi: duen indar eragilea duelarik ere, ezer gutxi espliatu ditzake hizkuntz ordezkapen eta burruken ezkutu-sakonak.

“Este razonamiento ofrecía, de ser correcto, una fácil salida para un problema difícil”. (1984, 161. orr.).

Bigarren eusle-faktorea, hizkuntzarekiko hiztunek duten atxekimenduarena, arakatu berri duguna baino are erabakikorragoa da Mitxelenarentzat. Ohargarria da, nolana ere, aipuaeren azken buruan itsasten duen oharra: izan ere, elementu hori ez dirudi Koldorentzat erreferentzia materialik gabeko hodei iheskorra denik.

“Pero, ¿qué pueden hacer las variedades menores —o, por mejor decir, sus defensores— en favor de su supervivencia en un mundo que, si no les es necesariamente fatal, no les es por lo menos demasiado favorable? Si se han conservado, si van a continuar vivas, esto se debe al apego que les han demostrado y les demuestran gentes de toda edad y diversa condición. Es decir, a lo que en inglés suelen denominar *language loyalty* y que no me atrevo a llamar adhesión ahora que los únicos adictos que parecen quedar son los entregados a las drogas, al tabaco o al alcohol.

Esta adhesión no es, sin embargo, un dato primitivo, un movimiento del espíritu que sopla donde quiere sin depender de algún sustrato de más baja condición. Está estrechamente condicionada y limitada por factores económicos, sociales, políticos (culturales, religiosos), etc.”. (1978c, 197. orr.).

Euskararen iraupena ahalbideratu izan duten elementu-baldintza sorta ederra hartu dugu Koldoren ekoizpenetik. Lerroz lerroko izendatze soilarekin geratzen bagara, irakurleari kosta egingo zaio ikuspegi globalik bereganatzen diskurtso barreiatu horretarik. Goazen bada, egin dugun bilduma lana lardaska antxean gera ez dedin, auzi honi buruzko ahalik eta laburpen biribilduena irakurlearen esku ipintzea. Ez dakit, ondoko honekin, hori lortu denik.

“Me limitaré a indicar algunas de las razones que, a mi entender, dan alguna luz sobre la dura consistencia de la zona de habla vasca durante los siglos que mejor conocemos.

Se trata, en primer lugar, de un área de emigración, no de inmigración, hasta la explosión industrial. La emigración aliviaba el exceso de población y aumentaba la riqueza del país: la Compañía Guipuzcoana de Caracas, por ejemplo, es posiblemente la primera muestra de colonialismo moderno (es decir, racionalmente impachable) en la América española. (...)

La existencia de instituciones autónomas contribuía también, aunque sólo fuera pasivamente, a la conservación de la lengua. Faltó una política de promoción, pero se impidió, en general, la acción represiva. (...)

En tercero y último lugar, aunque parezca una tesis paradójica, me permitiría sostener que la lengua no carecía, ni mucho menos, de prestigio, es decir, de prestigio de cierta clase, puesto que esta noción no tiene por qué ser total y unitaria". (1971a, 159. orr.).

Hizkuntzen bilakaera historikoan barrena haiek ez dute erabateko baretasunik inoiz eza-gutu; hizkuntzen historia kontraesanez zeharkaturik dagoenez, aldian aldiko indar erlazioen efektuz iraun ohi dute batzuek eta desagertu ohi dira besteak. Gainera, kontraesan horien izaera aski aldakorra gerta daiteke lekuz eta aldiz: interes militarrek, edo ekonomikoak, edo erlijiozkoak nabarmen daitezke, beste askoren artean. Argi eta garbi dagoena, neurri batean bederen, menpekotasunezko harremanez itotzen direla mintzairak; eta, azpiraketa hori ez dela sekula maila linguistikoan soilik mamitzen den fenomeno izan. Hizkuntza boteretsuaren eusle ageri dira, ageri ere, dela indar militarra, dela ekonomikoa, dela politikoa. Ezin konta ahala faktore, horiek horrela, hizkuntz burruken barrutian, aldez edo moldez, lehian dabiltzanak. Eta nola jakin faktore-eragile guzti horien determinazio-gradua? Nola jakin, hain zuzen ere, zein den nagusi eta zein mendeko? Nola jakin, hitz batez, kontraesan nagusia zertan datzan, eta horrek irensten dituen beste hainbat nola kokatzen diren harekiko eta elkarren artean? Hara zer dioen erreenteriarrek auzi honi buruz.

"No es que no se puedan observar, sobre todo cuando se juzga sobre hechos consumados, factores que han tenido que influir en la próspera y adversa fortuna de las lenguas; lo que es difícil de probar, (...) es hasta que punto esos factores, solos o reunidos con otros, han sido o son determinantes o decisivos". (1974a, 184. orr.).

Antonio Tovar-ek, euskararen inguruko ikerbideetan hain sakonki arituak, bazuen bai bere interpretazioa gure hizkuntzaren iraupen miresgarriaz. Egoki eta zuzen iruditu zaigu bere iritzia hona ekartzea, euskaldunok gugatik bestek egindako lan eskergaitzak behar adina baloratu izan ez ditugulako lehenik, eta Koldorekin batera ikergaietan aitzindari izan dugulako hainbat gaietan, bigarrenik. Hauxe zen bere ikuspuntua, puntu horretaz.

"La lengua vasca, que no parece sea la de las culturas indígenas de Andalucía o Levante, sino que estuvo limitada a las regiones montañosas atrasadas al norte de la Península, se conservó probablemente porque los vascos, como los cántabros, se rebelaron contra los invasores y no llegaron a ser incorporados a los reinos de francos y visigodos. Leovigildo funda Vitoria en recuerdo de un triunfo sobre los montañeses, y seguramente como un punto avanzado en la defensa. Pero en las montañas aquella gente continuaba su vida rudimentaria en libertad; el Cristianismo no había entrado en la región, y en aquel momento decisivo en que la Iglesia y los reinos bárbaros continuaban la labor unificadora y civilizadora de Roma, los vascos quedaban fuera de las grandes corrientes de la Historia. Si a esto su suma que el vasco era una lengua fundamentalmente distinta del latín, se comprende también su resistencia"³⁷.

EUSKARAREN ATZERAKADA

Euskararen ordezkapen prozesuari eskainitako atalean gauza asko esaten ditu Koldok hizkuntz aldaketa horren zergatiak esplikatutako nahirik. Albo-hizkuntzak gure etxean sartu eta hauek kultur funtzio berrien jabe nola egin diren azaldu digu; baita, orobat, oinarritzko eginkizun behetiarretan nola nagusitu zaizkion euskarari honek betidanik bere eskuko izan dituen barruti tradizioaletan. Eredu eta funtzio galtze hori nola gertatu den jakitea arras inportantea izanik, ezta axola txikiagokoa euskararen atzerakada, batipat beronen zentzu-izari geografikoan, nondik-nora urratu den jakitea. Lurraldeztutuz eta murriztuz etorri zaigu euskara aintzinatik; dena esateko, hedakuntza aroak ere ezagutu ditu, baina ez ditugu hemen aztergai hartuko. Lurraldeztoko eremu galtze horri buruzko aipamen eta gogoeta franko, aski jakingarriak gainera, aurki daitezke Mitxelenaren obra guztian zehar. Halare, oraingoan, han-hemen mokoka ibili gabe, testu oso bat eskainiko dugu, izenburuztat horixe bera duena gainera. Atal hori “Euskararen atzerakada” izenburupean eskaini zuen bere “Euskararen bide luze bezain malkarrak” idazlan paregabean.

Dena dela, esan bezala, Koldok bere obra oparoko artikuluko kontagaitzen barrera, euskararen atzerakadari eskainitako informazio asko dago. Irakurleak errenteriarren xehetasun guztiak beregana nahi balitza, hemen doazkio gai hori agertuko zaioneko idazlan batzu. Ez denak, baina bai segur aski iturri sendoenak, atzerakada horren zertzeladez norik bere burua jantzi nahi badu.

Euskarazko bat aipatzeko, hauxe hartzen dugu: “Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak”. Erdarazkoetan, gaia behin eta berriro jorratzen du “La lengua vasca” artikuluan, orobat “Historia de la literatura vasca” liburuan, “Sobre el pasado de la lengua vasca” liburuan, eta “Sobre la historia de la lengua vasca” artikuluan.

Besterik gabe, beraz, gorago aipatu dugun atala (“Euskararen atzerakada”) bere osotasunean aldatuko dugu hona; ziur gaude gainera testua bere trinkotasunean aski izango dela, gai honi dagokionez, ikuspegi orokor bat hontzeko irakurlearen adimenean.

“XI. mendetik gutxienez, badakigu aski hurbiletik nolakoa zen kanpoko mugetan euskararen hedadura, gaurdaino iraunerazi zuen gune trinko bat zeukala, ertzetan listuz joan den arren, honela adieraztea zilegi bada. Uste izatekoa da, baina ez oso garbia, 1500 inguruan Ebroz behekaldean ez zela euskararik, izen berezi batzuk edo sustratozko hitz bakan batzuk izan ezik. Ez dirudi Frantzia aldean hizkuntza zedarriek aldaketarik izan zutenik herriska edo etxe multzoren batean ez bada. Ez dago argibide zuzenik ere, nere ustetan, XVI. mendetik aurrera Erronkaritik haranzko ibarren batetan, nafarroatik kanpora euskaraz egiten zenik uste izateko.

Agirietan ditugun hutsarteak hizkuntza atzeraka ibiltzetik datoz, eta ez bakarrik erromantzearen aurrean lurra galdu duelako: izkribuetan bigarren mailakoa da, honengatik izen bereziak berak ere pasarte bakanetan ageri dira gehienetan, edota areago oraindik, erromantze moldez ematen dira, honelakorik baldin bada eta ez euskaraz. Historialariarentzako gaitzerdiz, zenbait auzitan aipamenak hitzez hitz ematea axola handikoa zela eta, perpaus batzuk euskaraz ematen dira; azken mende erdi honetan hasi zaizkigu honelakoak biltzen eta argitaratzen. Hau dela eta, are inkisizioaren prozedurak gorrotatzen ditugunok ere, haren ardura eta zehaztapenari eskerrak eman beharrean gara oraingo honetan. Egun badakigu, adibidez, 1569.ean Burgi, Erronkariko sarreran bertan, guztiz euskalduna zela, eta bertako mintzaira hark hain zuzen ere ia euskal itzultzailea behar zuela.

Mugak atzeraka datoz: Araban, Odon Apraizen ustez, atzerakada hori XVIII. mendean gertatzen da batez ere (garai hartantxe, hain zuzen, ematen digu Kardabera-zek bertako hizkuntz egoeraren berri), Nafarroan ostera, hurrengo mendean gertatuko ornen da gibeleratze nagusia. Lizarra aldean, esaterako, orduan burutzen da segur aski lehendik zetorren erdalduntzea; eragin horretan axola handikoa da Independen-tziako gerratea eta, are gehiago, hogeit hamar urte ondotik darraion lehen karlistada. Honelako zerbait ere gertatu zen, sasoi ongi zehaztu gabe dagoen arren, Bizkaiko Enkartzioetan. Eta azkenik, ordenak axola kentzen ez diolarik, barneko galera dator, Iruñea eta antzeko hirietan. Gertakari hau, Gasteizen XVI. mendean nabaria, izan zen luzarora, eta ongisko dakigunez, aldaketen arrazoi nagusia.

XVIII. mendean susmoa baizik ez zena, aski nahasi eta zehaztu gabea, argi dago XIX.ean, gero eta ageriago, orduan eta etsigarriagoa. Irakaskuntzaz arduratzen zirenak, Iturriagak adibidez, edo foruen gainbeheraz kezkatuek, Iztueta bezalakoek, erdizka adierazi zutena, argi eta garbi esan zuen, begizorrotx paregabe, kanpotarra baina Euskal Herriko maitasunez gainezka genuen G. Humboldt: euskara 1900.erako, haren ustez, izkribuetan gordetako oroitzapena baizik ez genuke izango.

Ondoren 1872-76.eko gerra zibila dator eta azken urte honetako lege deuseztatzailea; berez Nafarroa ukitzen ez badu ere (eta Ipar Euskal Herria ere ez, noski), honek izan zituen ondorioak, behetik jota, ez ornen ziren hizkuntzarentzako mesede handiegia izan. Hortik Bizkaiko meatzeak, lehengo neurririk gabe, hondarreraino zulatzea etorri zen, industria larriaren finkatzea eta etorkinen lehen uholde gaitza. Ordura arteko Euskal Herria ez zen, barneko zenbait eskualdetan behinik behin, nekazari eta arrantzale barruti hutsa, industriari itxia. Baina, halaz guztiz, orduantxe gertatu zen gure artean nolokotasunean lehen jauzia, anartean pausoz pauso eta arian arian zetorren hazkundearekin guztiz bestelakoa. Bigarren etena, aurrekoa baino basagoa eskierki, gerra ondoko urteetakoa dugu.

Ez dirudi gauzak nekazal lurralde batzuetan hobeto joan zirenik. Oker ari ez bainaiz, Kanpionek sentimendukeriaz huts egin zuela esan izan da *El último tamborileo de Errondo*, adibidez, idatzi zuenean: *Blancos y negros-en* baino areago. Hemen, idaztancerari dagozkionak axola ez zaizkigula, zaletasunak eta adikidetasunak baztertuz, oinarriko emanak egiazkoak ote diren jakiten arduratu behar dugu. Eta oso bildur naiz erantzun bakarra baiezkoa ez ote den izango”. (1978b, 34. orr.).

Soziolinguistikaren arloan Mitxelenaren ekarpena zein izan den jakiteko burutu dugun biltze-lan hau, euskaltzaindiak argitaraturiko liburu bikain bateko pasartearekin amaitu nahi genuke. “Hizkuntz Borroka Euskal Herrian” da delako liburua, eta bere “Ondorio gisa” kapituluko “Atzerapen prozesua” ekarri dugu hona: labor eta trinko, arazoaren erro sakonak begiz jota, gertatu dena gertatu behar zuela esango digu, eta hori gidari izango bagenu, agian euskaldunok gauza izango ginatete erro sakon horiek erauziz, euskara gure hizkuntza nazionala bilakatze. Hemen doakizu laburpen hori.

“Euskararen atzerapean edo galera bere ordezkapenez burutu da: lehen aldi batean erro-mantzeen bidez Euskal herriaren Hegoan eta Mendebaldean, eta gero gartzelania-frantsesen eskutik.

Espainia eta Frantziako hizkuntza ofizialek euskararen ondoan duten indarra hain nabaria izanik, gauzak ezin gertatu diren bezala baizik.

Izan ere, hizkuntza bi horiek Espainia eta Frantziako botere politiko, ekonomiko eta kulturalaren babes ofiziala beren alde izan duten eta duten artean, euskara inolako laguntzarik ga-

be aurkitu da (baita Euskal herriak nolabaiteko gobernabide politiko eta ekonomiko propioak izan dituenean ere).

Horrek noski, errudun bakarrak besteak ez direla aitortzea eskatzen du.

Erromantze-hizkuntzen artean gordetako hizkuntzaren egoera korapilotsu honek ez du aukerarik eman zenbait teoriak onuragarritzat daukaten elebitasun orekatu hori burutu ahal izateko. Gertatu dena, aitzitik, hizkuntza baten besteazko ordezkapen hutsa izan da.

Atzerapen-prozesu honetan kontutan hartzekoa da, orobat, menpekotasun sozio-ekonomiko eta kulturalereko egoera honen ondorioz hiriguneetan eta, neurri apalagoan bada ere, gainontzeko eskualdeetan gertatu den higadura naturala, bakoitzaren abiaguneko baldintza desberdinei beste pribilegio aldebakarrekoak erantsi behar bait zaizkio; maila guztietako irakaskuntza, komunikabide ikus-entzundatzizkoak (prentsa, irratia eta telebista), eta azkenik Administrazioa eta Zerbitzu publikoak.

Horrela, geroz eta famili giro eta lagunartea murriztuago, euskara ahultze-prozesu etengabe batean barrena joan da, bizi dugun diglosi giro honetara iritsi arte³⁸.

Oharra: Koldo Mitxelenaren testuetarik harturiko aipuen oinean ipini den orrialde-zenbakia zerrenda honetako bigarren argitalpenari dagokio, "Orobat" hitzaren jarraian datorrenari alegia. Hauek eskurakoagoak dira, izan ere.

- 1951a: *Euskal literaturaren etorkizuna*, EGAN (3), 17-21 or. Orobat "Mitxelenaren idazlan hautatuak", Etor, Bilbao, 1972.
- 1954a: *Problemas teóricos y prácticos de la lingüística vasca*, "Munibe VI", 1954, pp. 194-209. Orobat "Sobre historia de la lengua vasca", Anejos ASJU 10, Donostia-San Sebastián, 1988.
- 1956a: «*Eusko-Gogoa*» eta «*Euskeraz*», EGAN (5-6), 157-163. or. Orobat "Mitxelenaren idazlan hautatuak", Etor, Bilbao, 1972.
- 1960a: *Asaba zaharren baratza*, EGAN, 1960 (3-6), 121-134 or. Orobat "Mitxelenaren idazlan hautatuak", Etor, Bilbao, 1972.
- 1960b: *Historia de la literatura vasca*, Ed. Minotauro, Madrid, 1960.
- 1964a: *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Ed. Auñamendi, San Sebastián, 1964.
- 1968a: *Euskararen batasun bideak*, (Arantzazuko txostena), EUSKERA, 1968, 203-219. or. Orobat "Mitxelenaren idazlan hautatuak", Etor, Bilbao, 1972.
- 1970a: *Aditz batuz*, (Baionako txostena), "Mitxelenaren idazlan hautatuak", Etor, Bilbao, 1972.
- 1970b: *Pro domo*, EGAN, 1970 (1-3), 11-26 or. Orobat "Mitxelenaren idazlan hautatuak", Etor, Bilbao, 1972.
- 1971a: *Lengua y cultura*, "I Semana de antropología vasca", Bilbao, pp. 307-330. Orobat "Lengua e historia", Paraninfo, Madrid, 1985.
- 1971b: *Notas sobre las lenguas de la Navarra medieval*, "Homenaje a Don José Esteban Uranga". Pamplona, 1971, pp. 199-214. Orobat "Pálabras y Textos", Euskal Herriko Unibertsitatea, 1978, Gasteiz.
- 1972a: *Mitxelenarekin elkar hizketan*, Zeruko Argia, 1972-6-4, 1. or. Orobat "Euskal idazlan guztiak IX" (Artikuluak eta beste II), Klasikoak-29. 1988.
- 1972b: *Zenbait hitzaldi*, Etor, Bilbao, 1972.
- 1974a: *Las lenguas y la política*, "Boletín informativo de la Fundación Juan March"-en argitaratua, eta baita "Doce ensayos sobre el lenguaje" en ere, Madrid, pp. 119-137. Orobat "Lengua e historia", Paraninfo, Madrid, 1985.
- 1974b: *Hablando con los vascos*, Martín Ugalde, Ed. Ariel, Barcelona.
- 1975a: *Sei idazle plazara liburuari buruz*, Anaitasuna, 1975-1-15. 8. orr. Orobat "Euskal idazlan guztiak VIII" (Artikuluak eta beste), Klasikoak-28.
- 1977a: *Jaioko dira berriak*, Deia, 1977-6-8, 2. orr. Orobat "Euskal idazlan guztiak VIII" (Artikuluak eta beste I), Klasikoak-28, Donostia, 1988.
- 1977b: *Unibertsitatea eta irakaskuntza gure artean*, JAKIN-1. Donostia.
- 1977c: *Koldo Mitxelena*, Eugenio Ibarzabal, Erein, San Sebastián.

- 1978a: *Arantzazutik Bergarara*, Euskera (1978), 467-477. or. Gero SHLV-n. Orobat "Euskal idazlan guztiak VII" (Hizkuntzalaritzaz II), Klasikoak-27. Donostia.
- 1978b: *Euskararen bide luze bezain malkarrak*, "Euskararen liburu zuria", Euskaltzaindia, Bilbo, 15-28. or. Gero SHLV-n bilduma. Orobat "Euskal idazlan guztiak VI" (Hizkuntzalaritzaz-I), Klasikoak-26, Donostia.
- 1978c: *Sobre bilingüismo*, "Estudios y trabajos del Seminario Llingua Asturiana", 1978, pp. 29-36. Orobat "Lengua e historia", Paraninfo, Madrid, 1985.
- 1980a: *Identidad vasca. ¿Recuperar qué?*, MUGA, n.º 10 - Octubre 1980.
- 1981a: *Laburpena*, "Perspective de recherches futures". Iker-1 (Bilbao, 1981). 425-426. or. "Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak". Orobat "Euskal idazlan guztiak VIII" (Artikuluak eta beste), Klasikoak-28, Donostia.
- 1981b: *Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak*, "Euskal linguistika eta literatura: bide berriak", Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, Bilbon, 1981 an.
- 1981c: *Perspective de recherches futures*, "Euskalerriren nazioarteko jardunaldiak", Euskaltzaindia, Bilbo 1981. Iker-1, pp. 417-426. Orobat "Sobre historia de la lenguavasca-II", Anejos ASJU 10, 1988, Donostia.
- 1981d: *Koldo Mitxelena*, MUGA n.º 13, Febrero, 1981.
- 1982a: *Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco*, "El bilingüismo: problemática y realidad", Revista de Occidente, Núms. 10-11.
- 1983a: *Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1880)*, Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa, Bilbo 1983, 237-250. or. Gero SHLV-n. Orobat "Euskal idazlan guztiak VI" (Hizkuntzalaritzaz I), Klasikoak-26, Donostia.
- 1983b: *Euskara nafar hizkuntza, Euskara heriotz bidean*, Nafarroako Euskal Herrian Euskaraz", Iruñako Requete Irratian izandako saioak, 1983.go Apirilaren 11-tik 15-ra.
- 1984a: *Lingüística inmanente y lingüística trascendente*, ASJU XVIII, 1984, pp. 249-266. Orobat "Sobre historia de la lengua vasca-II", Anejos ASJU, 10, Donostia-San Sebastián, 1988.
- 1984b: *Romanización y lengua vasca*, FLV 1984, XVI, pp. 189-198. Orobat "Sobre historia de la lengua vasca-I", Anejos ASJU 10, Donostia-San Sebastián, 1980.
- 1986A: *La lengua vasca*, "Ser Vasco", Mensajero, Bilbao.
- 1987a: *Koldo Mitxelena* (Elkarrizketa), ARGIA, Euskal kulturaren Urtekaria-1987.

BIBLIOGRAFIA

- 27.- Balibar Renée, Laporte Dominique. *Burguesía y lengua nacional*, Avance ed., Barcelona, 1974, 122. orr.
- 28.- Macellesi Jean Baptiste, Gardin Bernard. *Introducción a la sociolingüística*, Ed. Gredos, Madrid, 1978, 28. orr.
- 29.- "AITZOL", Ariztimuño, José. *La lucha de idiomas* op. cit., 262. orr.
- 30.- Fishman, Joshua A. *Hizkuntz hedapena . . .*, op. cit., 15. orr.
- 31.- Sánchez Carrión, José María "Txepetx". *Fundamentos para . . .* op. cit., 29. orr.
- 32.- Sánchez Carrión, José María "Txepetx", *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra*, Institución Príncipe de Viana, Diputación Foral de Navarra, Pamplona, 1972, 182. orr.
- 33.- Euskaltzaindia, *Conflicto lingüístico en Euskadi*, Ediciones Vascas, Bilbao, 1979, 29. orr.
- 34.- Euskaltzaindia, *Euskararen liburu zuria 1*, Bilbao, 1978, 276. orr.
- 35.- "BELTZA", *El nacionalismo vasco (de 1876 a 1936)*, Ed. Mugalde, Hendaye, 1974, 218. orr.
- 36.- Azurmendi, Joxe. *HABE*, 7. zenbakia, Donostia, 1982.
- 37.- Tovar, Antonio. *Lo que sabemos de la lucha de lenguas en la Península Ibérica*, Ed. Gregorio del Toro, Madrid, 1968, 38. orr.
- 38.- Euskaltzaindia, *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian*, Ed. Vascas, Bilbao, 1979, 191. orr.